




ARGIA



ARGIATIK EUSKALDUNON EGUNKARIRA **EUSKARAZKO EGUNKARIA** **ALDARRIKATZETIK EGITERA**

PASCAL GAGNE
KONPOSATZAILEARI
ELKARRIZKETA

REGGAETOIA
FEMINISTA
IZAN DAITEKE

JATORRI EZBERDINEKO
BIZILAGUNAK
ELKARREKIN BAZKALTZEN



ARGIA

DURANGOKO AZOKAN

Artekale 88-89-90 (Literatura Aretoaren ondoan)

***Zatoz bixitan.
Eman zure iritzia aldizkari berrituaz
eta baratzerako landaretxo bat zuretzat.***

Egizu, egiozu astero berritzen den oparia.
ARGIA astero, hamabostero edo hilero jasotzeko aukera duzu.

EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

☎ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza | Industrialdea, 15 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailua
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Mikel Zurbano
- 20 Markel Ormazabal
- 21 Iván Giménez
- Itxaro Borda
- 22 Andoni Mujika



1980ko hamarkadan ARGIA n hasi zen lantaldea nola iritsi zen euskara hutsezko egunkaria egingo zuela erabakitzen? (ARGIAKO ARTXIBOKO ARGAZKIA)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: POL GALOFRE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO MUNTATIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Pascal Gaigne, konposatzailea bere burbuilan / Sustrai Colina
- 24 | Euskaldunon Egunkaria: 25 urte sorreratik / Lander Arbelaiz Mitxelena
- 30 | Bizilagunak egitasmoa: kultur aniztasuna sendotzeko, albokoa ezagutu / Irati Sarasua Arabaolaza
- 34 | Cikautxo, MU eta Fagor, euskararen lobbyak / Saioa Labaka
- 37 | Txanponaren beste aldeak / Lander Arretxea Bereziartua
- 42 | Reggaettoa: posible da politikoki perreatzeko / Danele Sarriugarte Mochales
- 47 | Euskal film laburren sektorea: industria sortzearen garrantzia / Miren Manias

MILA ESKER **ARGIA** KOMUNIKAZIO PROIEKTUAREN BULTZATZAILE NAGUSIAK ZARETEN HARPIDEDUNEI ETA DIRU EKARPENAK EGITEN DITUZUENEI



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iratze Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Ekoizpenak: Berdaitz Goia. **Idazkaritza:** Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Ione Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473 163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Karobia martxan

XVI. mendean Euskal Herrian hain ugari zen karobia lanean ikusi da aurtan Larraulen (Gipuzkoa). Ezinbestekoa zen karea orduko bizimodurako: soroetan ongarri, aziendarentzat botika, baserriko hormentzat pintura eta desinfektatzaile, igeltserotzarako itsasgarri... Azaroaren 18an eman zioten su eskolako umeek Antzola baserriko karobiari. Koldo Jauregik burutu du, Ekomuseoaren bidez, ametsa: 1947an azkenekoz piztu zen karobia berriz martxan jartzea. 21 tona kare-haitz 500 gradutik gora eduki dituzte erretzen bost egunez etenik gabe. Sua bizirik mantendu dute egur hauek erabiliz: haritza, pagoa, lizarra, gaztaina eta otea.

Argazkilaria: Dani Blanco



"Argi gelditu da lruñea ez dela hiri arrunt bat; hau Mordor da"


Abel Azcona artista, *Berria* egunkarian.

argia.eus-en ikusgai



"Gutxietsi egiten dute nesken kirola hedabideetan"

Maite Murgia Lazkaoko txirrindularia Sorginak bideo-sortako lehen saioan elkarri-
rriketatu dute.



Komunikabideen boterea, boterearen komunikabideak

Propaganda, boterea eta hedabideak triangulu beraren ertzak dira, jabearen ahots bilakatzen direnean.



Avaaz elkarteak 10.000 zapata baino gehiago biltzea lortu zuen azaroaren 30ean Parisko Errepublikaren plazan, manifestazioak egiteko debekuagatik protestan.

COP 21: klimaren 0 urtea?

Unai Brea
@unaibrea

Hasi da Parisen COP21, beharbada historian ikusmin handiena sortu duen klimari buruzko goi-bilera. Kyotoko Protokoloa 2012an agortu zen gas berotzaile emisioak murrizteko helburua bete gabe –guztiz kontrakoa–, eta xedea eta bitartekoak ondo zehaztu gabe dituen haren luzapen batean gaude orain, 2020ra arte. Urte horretan sartu behar luke indarrean Parisko akordioak.

Porrotez porrot, Kopenhageko COP15etik sei urte joan dira Kyoto ordezkatuko duen itunaren ezaugarriak definitzeko ahaleginean; ez da denbora nahikoa izan Parisko biltzarrerara proposamen ausart barekin iristeko. 2009an adostu zen klima aldaketaren ondorio latzenak saihesteko, mende honen amaieran tenperatura 2 °C baino gehiago ez igotzea lortu behar zela. COP21 hasterako

estatuek aurkeztu dituzten asmoen arabera, ordea, igora hori gutxienez 2,7 gradukoa izango da.

Bitartean, klima aldaketa aztertzen duen nazioarteko zientzialari taldea, IPCC, argi mintzatu da bere bosgarren txostenean: benetako konponbideari ekin behar diogu lehenbaiten, denbora agortzen ari zaigu eta.

Mobilizazioak mundu osoan

Paristik aterako den hitzarmena behar bezain ausarta izango ez den beldurrez, COP21en hasieraren bezperan milaka lagun atera dira kalera mundu osoan –baita segurtasunaren obsesioak jotako Paris asaldun ere–, klima aldaketari aurre egiteko akordio benetan eraginkorra galdatzeko. Frantziako hiriburuan 300 atxilotu baino gehiago izan ziren, kalean mobilizazioak egiteko debekua ez betetzea erabaki zuten 10.000 lagunek manifestazioa egin ostean.

**"Zuetako askorena ere bada sari hau!
Lanean jarraitzeko akuilutzat hartu dut"**

KIKE AMONARRIZ, SOZIOLINGUISTA ETA TELEBISTAKO AURKEZLEA

Kike Amonarriz "euskarari egindako ekarpena" saritu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bi urtean behin Anton Abbadi saria banatzen du, euskararen alde diharduten pertsona nahiz erakundeen lana aitortzeko. Zeruko Argian umorezko artikulua idazten hasi, eta ondoren hainbat txiste liburu eta kasete argitaratu zituen. Telebistara egin zuen salto ondoren.

@KIKEAMONARRIZ TWITTER KONTUTIK HARTUTAKO ADIERAZPENA



ESPETXE ESKAERA POLITIKA EGITEAGATIK

Ezker abertzalea: 35 auzipetu eta 347 urteko zigor eskaera

“Dena da ETA” mamuaren itzala luzea da. Lau urte joan dira ETAk bere jarduera armatua utzi zuenetik, baina makroauziak bata bestearen atzetik datoz Auzitegi Nazionalen. Turkian bezala, Espainian politika egitea espetxera joateko arrazoi izan daiteke gaur egun.

4/2008 SUMARIOA EDO “SEGURAKO MAKROAUZIA”

AUZIPERATUAK, FIDANTZAK ETA EGINDAKO ESPETXEALDIAK:

Ino Galparsoro	30.000 €	3 hilabete
Alazne Arozena	-	-
Marisa Alejandro	50.000 €	2 urte eta erdi
Karme Aierbe	10.000 €	Urte 1 eta 3 hilabete
Anjel Mari Elkano	50.000 €	2 urte eta erdi
Pernando Barrena	50.000 €	2 urte
Juan Joxe Petrikorena	50.000+20.000 €	2 urte eta erdi
Maite Fdez. Labastida	15.000 €	2 urte
Gorka Etxeberria	30.000 €	2 urte eta 7 hilabete
Arantza Santesteban	50.000 €	2 urte eta erdi
Mikel Garaiondo	50.000 €	2 urte
Joseba Zinkunegi	50.000+20.000 €	2 urte
Haizpea Abrisketa	10.000 €	-
Jon Garai	25.000 €	2 urte eta erdi
Iñaki Olalde	6.000 €	2 hilabete
Patxi Urrutia	30.000 €	Urte 1 eta 10 hilabete
Gorka Díaz	15.000 €	2 urte
Mikel Etxaburu	50.000 €	2 urte
Marije Fullaondo	50.000 €	2 urte eta 2 hilabete
Aner Petralanda	50.000 €	2 urte eta erdi
Joana Regeiro	30.000 €	2 urte eta 2 hilabete
Mikel Zubimendi	50.000 €	2 urte eta erdi
Egoitz Apaolaza	10.000 €	-
Iñigo Balda	10.000 €	Urte 1 eta 3 hilabete
Nuria Alzugarai	50.000 €	2 urte
Aitor Aranzabal	50.000 €	2 urte
Asier Imaz	15.000 €	2 urte
Eusebio Lasa	50.000 €	2 urte
Hasier Arraiz	50.000 €	2 urte eta erdi
Peio Galvez	10.000+20.000 €	Urte 1 eta 3 hilabete
Aurore Martin	15.000 €	2 hilabete
Nekane Erauskin	60.000 €	-
Karme Berasategi	60.000 €	-
Juan Carlos Ramos	-	-
Jesus Agirre	50.000 €	-

OSOTARA 1.266.000 € 54 urte



AKUSAZIOAREN SALAKETA:

Talde armatuko kide izatea



ZIGOR ESKAERA:

- 10 urteko espetxe zigorra bakoitzarentzat (salbu Aurore Martin, 7 urte)
- 10 urteko inabilitazioa enplegu eta kargu publikorako
- Erabateko inabilitazioa zigorrak dirauen denboran



EPAITEGIA:

Auzitegi Nazionalako Zigor Arloko 2. Aretoa



AUZIAREN INSTRUKZIOA:

Baltasar Garzon



EPAIMAHAI:

Concepción Esgel (lehendakaria), José Ricardo de Prada (ponentea) eta Julio de Diego



FISKALAK:

Vicente González eta Dolores Delgado



AKUSAZIO PARTIKULARRA:

AVT



DEFENTSA ABOKATUAK:

Iñigo Iruin, Amaia Izko, Onintza Ostolaza, Eukene Jauregi, Jone Goirizelaia



AUZI-SAIOAK:

Abendua: 3, 4, 10, 11, 14, 15, 16.
Urtarrila: 11, 12, 13, 18, 19, 20, 27, 28.
Otsaila: 3, 4, 8, 9, 10, 15, 16, 17, 24, 25. Martxoa: 3, 4, 7



GASTUAK:

187.250 € (5.350 € auzipetuko)

- Hotela, bidaiak, otorduak: 2.850 € auzipetuko
- Abokatu eta prokuradorea: 2.500 € auzipetuko



KRONOLOGIA:

- 2003: Batasuna legez kanpo
- 2007: Segurako atxiloketak
- 2008: ANV eta EHAK legez kanpo
- 2009: Auziperatze agindua
- 2013: Estrasburgoko Auzitegiak ANVlen ilegalizazioa berretsi zuen



**ABENDUAK 3,
EUSKARAREN EGUNA**

Euskararen talibanak omen gara

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Eta harro gaude. Ez dugu inor euskara erakartzeko erantzukizunik nahi gure bizkar gainean, parez pare daude irekita euskararen ateak, sentitu dezala elebakarrak berak horretarako ardura eta beharra, arazo bat duelako (ez daki euskaraz). Ez dugu diskurtso tranpatirik irensten: ez diezagula inork gehiagok esan euskara inposatzen dugunik, muturrean erantzungo diogulako bera dela etengabe erdara inposatzen ari zai-guna, bestela zergatik dakizkigu guk bi hizkuntza eta berak bakarra?; ez diezagula eskatu -aldebakarreko- errespaturik, harreman orekatuek egiten dutelako posible elkarbizitza, ez beti guk amore emateak; ez etorri guri elebitasunaren iruzurrarekin, gure herriko hizkuntzen egoera asimetricoan erdara beti ateratzen delako garaile; eta ez hasi guri lehentasunen matrakarekin, hizkuntzaren auzia beti bigarren mailara alboratzeko aitzakia gisa. Ez dugu nahi euskaraz ez dakien langilerik administrazioan, ez eta erizain eta medikurik osasun publikoan; euskara ikastera derrigortu nahi ditugu politikariak eta zerbitzua euskaraz ematera denda eta enpresak; hizkuntza eredu bakarra eskaini gura dugu eskola guztietan: euskara ardatz duen murgiltze eredua; eta euskara

ikastea unibertsala eta doakoa izatea eskatzen dugu. Arreta gune eta telefonoetan lehenengo hitza euskaraz ez egi-tea zigortuko genuke; "bi zurito" eskatu eta hori ere ulertzeko gai ez delako (edo ulertu nahi ez duelako) "¿qué?" erantzun diguten tabernan ez dugu gehiago kontsumituko; banku, argindar, telefono-konpainia eta abarretako fakturak ere ez ditugu ordaindu nahi, euskaraz zuzentzen ez bazaizkigu; liburutegietan euskarazko irakurgaiak lehenestea exijitzen dugu; ekitaldi, prentsaurreko eta hitzaldietan informazio nagusia euskaraz ematea eskatzen dugu (itzultzailea behar izatekotan, erdaldunentzat izan dadila); tailer, kiroldegi eta ikastaroe-tan euskara bermatzera behartuko genituzke antolatzaileak, eta euskararen ezagutzak dagoeneko %100 izan behar lukeen eremuetan (haur eta gazteentza-ko eskaintza osoan, adibidez) euskara baino ez genuke onartuko. Taldean gu-txiengoak euskaraz ez dakielako, soluzioak ezin du beti izan denak erdarara bultzatzea. Ez dugu euskara folkloris-morako nahi, gure identitatean erro-tua baizik. Botereguneak, etxeak, kaleak, plazak, aisialdi eremuak... hartu nahi ditugu, bazterretik erdigunera. Gero eta gehiago baikara, konplexu eta beldurre-tatik jardun beharrean, jarrera irmoa eta ahaldundua amets dugunak, euskal-dun ororentzat.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gerra negozio



Juan Mari Arregi

Estatu Islamikoaren (ISIS) atentatuak ikusita, ez da erraza frantziar jendar-teak bizitako egoerari arrazoirik bi-latzea, batez ere aurrean 130 hildako dituzunean. Are zailagoa da hori egi-tea prentsak, irratiek eta telebista ka-teek egunak daramatzatenean Paris-koaren eta Malikoaren kontakizuna diskurtso ofizialera bideratzen. Baina komeni da jakitea zein sakoneko in-teres dauden jokoan, eta manipula-zio mediatikoaren aurrean ahotsa al-txatzea, gertaturikoan erantzukizun handia dutenen eskuetan baitaude medio horiek preseski.

Egia da egoera oso konplexua dela, hau ez da Jainkoaren eta Alaren arte-ko gerra bat. Atzean interes ekonomi-koak dituen gerra batez ari gara, eta milaka errugabe ari dira haren ondo-rioak ordaintzen. Armagintza enpre-sak sekulako onurak izaten ari dira, Burtsan ere euren balioa gorantz doa ziztu bizian. Ezin ahaztu gune bero horien iragan koloniala: euren errekurtsuak kontrolatzeko tokiko diktadoreei babesa ematen zaie ko-menentziaren arabera. Iparrameri-karrek, britainiarrek, errusiarrek eta frantsesek Estatu Islamikoa bonbar-datzen dute bat eginik, bai baitakite hura desagerturik eremu horretako baliabideak eta petrolio putzuak kon-trolatzeko atea zabalik izango dutela, eta Mendebalderantz nahiz Ekialde-rantz petrolio zirkulazio estrategikoa lortuko dutela.

Bonbardaketa horiei erantzuteko modu bat izaten ari da mundu osoan atentatuak egitea, askotan desespe-razioz. Eta bitartean, G-20ko ardura-dunek minutu bateko isiluneak egi-ten dituzte Paris eta Maliko biktimen alde. Zinismo hutsa, eurak baitira Irak eta Siria dauden labirintoaren eta bizi duten egoera larriaren erantzule na-gusiak. Hala, kapitalaren mendekoak direnez, honen mesedetan negozio ederra sortu dute gerrarekin.



AXIER LOPEZ

Espainiako justiziari uko egin diote hiru gaztek

DESOBEDIENTZIA. 2007an bost gaztek A8 autobidea moztu zuten Espainiako Gobernuak Segi gazte antolakundea terrorista izendatu behar zuela salatzeko. Bi urte eta erdiko espetxe zigorra eskatu du fiskalak baikoitzarentzat. Ainara Ladronnek, Aritz Azkonak eta Naroa Ariznabarretak uko egin diote epaituak izateari eta abenduaren 1ean ez dira Donostiako epaitegira aurkeztu. "Bederatzi urtez luzatu den prozesu judizialak gure bizitza baldintzatu du; ez gaude prest Espainiako justizia sistemarekin kolaboratzeko; lege injustuetan oinarritutako epaiketa politikoa delako". Albisteak idatzi dugun unean ez dakigu atxilotzeko agindua eman dutenentz.

«Estatu Islamikoaren kontrako Frantziaren gerra broma ustela da»

Nafeez Ahmed

@NafeezAhmed

Hona *NATOk babesten du Estatu Islamikoa* analisisiko pasarte batzuk euskaratuta.

Estatu Islamikoaren azpiegitura

Estatu Islamikoa, hitz gutxitan, sustatu dute ustez Mendebaldearekiko lagunak ziren errejimen musulmanek, hauek Elren kontrako koalizioan dauden arren. Horrek garamatza galdeztzera ea zergatik François Hollande eta Mendebaldeko beste liderrek EI "suntsitzeko" behar den guztia egiteko prest daudela esanez, aldi berean saihesten duten faktore guztietan garrantzitsuena: Elren azpiegitura materiala antolatu dela Arabiar Golkoko eta Turkiako estatuek erakunde islamistei ematen dieten sostenguen baitan.

Oinarrian, petrolio

Mendebaldeak terrorrea sustatzen duten errejimen musulmanen mende dago, batik bat Ekialde Hurbilean, Mediterraneoan eta Asiako Erdialdean dauden petrolio eta gasak eskuratzeko. Herrialde industrializatuetako ekonomiek segituko dute oinarritzen hein handian petrolioan. Petrolio gehiena Ekialde Hurbilean ekoiztuko denez, AEBek motiboak dituzte Ekialde Hurbileko estatuekin harreman onak izateko. Baina estatu horiek terrorismo islamista sustengatzen dute.

HIESA



37 milioi

lagunek dute munduan Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIB).

22 milioi

lagunek oraindik ez du erretrobirusen aurkako tratamendurik. 1.200.000 pertsona inguru hiltzen da urtean hiesari lotutako gaitz batengatik. Eta 2030 urterako GIBaren epidemia desagerraraztea da Nazio Batuen xedea.



AKUILARI

Hizkuntza eskubideen urraketak salatzen aplikazioa sortu du Behatokiak. Akuilari aplikazioak erabiltzaileei aukera ematen die Behatokiari kexa bidaltzeko.



GURE HEZKUNTZA ERRAIKI!

Lelo hori izan dute ahotan milaka herritarrek, Hezkuntza Plataformen Topaguneak deituta Hego Euskal Herriko hiriburuetan egindako mobilizazioetan. Hezkuntza eredu arrotzei planto egitera eta gurea eraikitzen deitu dute.



INDARKERIA MATXISTARI EZ

Ezezko borobilarekin gaitzetsi dute indarkeria matxista azaroaren 25ean, Euskal Herri osoan egindako mobilizazioetan. "Inon, inori eta inoiz" ez dutela eraso sexistarik onartuko aldarrikatu dute herritarrek: "Hau ez da gure bakea".

Nola bultzatu CDC, horra gakoa



Xabier Letona

@xletona

AURRERATUKO dut bihotzak eta bu-ruak une honetan eskatzen didatela Kataluniako Parlamentuan CUPEk Artur Masen aldeko botoa ematea. Ibarretxe Planaren garaian Batasunak planaren alde serio egitea eskatzen zidan bezala. Indar metaketari begira bistan da ez zuela serio egin bere alde, baina baiezkoto batzuekin ahalbideratu zuen Eusko Legebiltzarrean plana ateratzea. Inork ezingo zuen esan berak bidea oztopatu zuenik, baina emandako sostengua hutsala zen, horrela Madrilgo Kongresuko paretaren aurka zihoalako lehenik eta euskal gizarteko trenbide itsura ondoren. Eta hala izan zen.

» **Arazoa larriago izango da eztabaida honen atzean dagoen mamia ezker abertzalearen ildo politikoa bera bada**

Denborarekin dena askoz hobeto ikusten da, jakina. Gaur egunetik begiraturata, argi ikusten da EAJko sektore zabal eta nagusiek zein lasai hartu zuten arnas planaren hondoratzearekin. 2015etik aztertuta, ulertezina egiten da Juan Jose Ibarretxe lehendakariak bakardadean egindako bidea. Bakardadea orain ikusten da, aldiz, orduan lidergoaren gorenean bere alderdia eta euskal gizartearen zati handi bat atzean zuen lider sendoa islatzen zen gizartearen ispiluan, zilegitasunez eta irmotasunez gainezka.

Bere alderdia ezagutzen zuenez, Juan Jose Ibarretxek nahiago izan zuen EAJ barruan borrokatu baino, independentziaren *think tank* bat eratu eta gizartean eragin. Magia eta ikerkuntza ez datozela oso bat jakingo du lehendakari ohiak, baina Eusko Legebiltzarreko ponentzian 2030erako independentzia aurreikusi zuen Katalunia eta Euskal Herrirako. Aitortu behar zaio, hala ere, duintasunez jakin izan duela ihes egiten ate birakarietatik. Bere Estatutu Berriaren mikroipuna halakoa izan liteke: Ibarretxek ezin izan zuen, EAJk ez zuen nahi izan eta ezker abertzaleak ez zuen asmatu.

ETA CUP-EKOEK, nola demontre ikusiko dute Masi Generalitateko atea ixtearen jokaldia 10 urte barru? Inork ez daki. Urtarrilaren hasiera arte ez da guztiz jakingo, baina *Mas edo Març* horretan hauteskunde usain sarkorra barreiatzen ari da Katalunian. CUPEk eta JxSí aitor-tua dute jada, eszenatokirik txarrena hauteskundeak errepikatzea litzatekeela, baina ez da oso sinesgarria, bestela badirudi logikoena adostasuna lortzea litzatekeela. Lehendakaria eta bere gobernua adosteko gai ez badira, nola sinetsiko du herritarrak independentziarako bide-orria adosteko gai izango direnik?

Korapilo honetan egon daitekeen klabe garrantzitsuetako bat honakoa da: CDC oso ukitua egon arren, ea bere bizkarrezurra nola sentitu den orain arte egindako bidez. Azken urteetan egon den zalantza nagusia izan da Mas noraino iristeko gai izango zen: orain arteko aurreikuspen guztiak gaingitu ditu, duda barik. Eta gakoetako bat honakoa da: ea nola akuilatzen den gehiago CDC-

ren mundu hori, Mas aurrera bultzatuz ala Mas baztertuz.

CDCn gaia oso argi balute, ordezkotatu jarriko lukete eta kito: hurrengo hauteskundeetan egoerak okerrera egiteko arriskua saihestuko litzateke. Egunotan egiten ari den apustua irabaziko luke orduan CUPEk. Baina, posible den bezala, CDCren baitan dena hain argi ez balego? Orduan hemendik hamar urtera iraganez hanka sartze hartaz arituko dira CUPen.

PRESOEN gaiak jarraitzen du izaten eztabaidagai ezker abertzalean, joan den azaroaren 28an Bilbon egindako manifestazioak erakutsi duen legez. Ez dago zalantzarik 2011n Estatuak presoekiko gutxieneko neurri humanitarioak hartu izan balitu, eztabaida ez litzatekeela orain berbera. Baina ez da halakorik gertatu eta urduritasuna barreiatzen ari da han-hemenka. Estatuak bazekien halakorik gerta zitekeela eta karta horrekin jokatzeko ari da, pertsonak eta haien eskubideak konplexu etikorik gabe erabiliz. Esan dezagun argi, Estatuaren indarkeria erabiliz. Egoera horretan, eztabaidarik ez izatea litzateke deigarriena. Testuinguru horretan, espetxetik atera berri den Jesus Mari Zalakainek *Berrian* esandakoak ez dira txarrenak iparrorratz gisa: "Gakoa da jarraitzea, bilerak egiten, manifestazioak, eskariak, ahal den guztia". Eztabaida hori kudeagarria da.

Arazoa larriago izango da eztabaidaren atzean dagoen mamia ezker abertzalearen ildo politikoa bera bada, helburu eta bitartekoak tartean direla. Bere gora-beherekin, baina balore handizat jo izan da ezker abertzale osoak batera amaitu izana borroka armaturaren bidea. Hala ote da? ■

ARGIAren istilu-liburutik

POT OTARRAINO!!!



Eta planeta hoztuko bagenu berotzen duten aberatsen diruz?



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Afrika, Latinoamerika eta Asiako zati handi baten energia hornidura 2030rako oso-osorik berriztagarri osatuta legoke une honetan munduko 738 pertsonarik aberatsenek pilatuta dauzkaten dirutzak erabilia. Horietatik 53ren ondasunak aski lirake 2030erako Afrikak behar duen energia guztia berriztagarria izateko.



Badaezpada ere, hau politika ez dela ohartaraziz hasi da Lurraren Lagunak (Friends of the Earth International, FEI) nazioarteko erakundea: ez dela defenditzen ari aberatsei beren urreak desjabetzea. Tentuz jokatu beharra dago arerio funtsezkorik ez daukan kapitalismo batiaren garaiotan...

Baina zenbakiek garrasi egiten dute FEIrentzako ere: "Gure munduak bi krisi suntsitzaile eta elkarri estu lotuak dauka aurrean: berdintasun eza gero eta handiagoa eta klimaren aldaketa. Biei aurrealdi berean egiteko garaia iritsi da".

COP21 klimaren gailurra giro berezian iritsi da Parisera, azaroaren 13ko sarraskietatik hamabost egunera. Baina sakonean datzan eztabaida multzoa lehendik zegoen itota udaz geroztik hedabide nagusiek antolatutako espektakuluaren erdian.

Esku batekin garapen ereduak lehenago ildotik ahurra bete urrutiratu gabe defenditzen dutenek, bestearekin herritarrak ikararazten dituzte gainera datozkien katastrofeak banan-banan kontatuz irudi zein baino zein zirrargarriagoekin. Esanaz bezala, "denok harapatuko gaitu katastrofeak mendea amaitzerako baina jarrai dezagun deus gerta ez baledi bezala".

Zalapartaren erdian eskertzen dira mezu argiak, Lurraren Lagunek zabaldu dutena bezalakoa *An Energy Revolution is possible* agiriarekin. Lurra planetako 782 jende aberatsenek, asko multi-

nazional handien buruzagiak, beren altxor pertsonaletan metatzen dituzte 5,149 bilioi dolar. Fortuna horrekin FEI kalkulatu du 2030rako Afrika, Latino Amerika eta Asiako lurraldeetako asko %100ean energia berriztagarri hornitzea posible litzatekeela. Munduko 53 aberatsenek dauzkaten sosak aski lirake Afrikako eremu osoa %100 berriztagarri elikatzeke.

FEI txostenean nabarmendu ditu munduko aberatsenen arteko batzuk, Oxfam erakundearentzako Deborah Harroonek idatzitako *Wealth: Having it all and wanting more: Data Summaries 2015* (Aberastasuna: dena eduki eta hala ere gehiago nahi. Informazioen laburpena) ikerlaneko datuetan oinarriturik.

Horrela, 2014ko datuetan, Bill Gatesek 76.000 milioi dolar dauzka jabe goan, Carlos Slim bere familiarekin batera 72.000 milioi, Amancio Ortega 64.000 milioi, Warren Buffetek 52.800, Larry Ellsionek 48.000, eta abar.

Afrikak 2030erako energia guztia berriztagarri edukitzeko beharko luke 1,501 bilioi gehiago inbertsion, Latino Amerikak 1,165 eta Asiaren zati handi batek (kendurik Txina, India eta herrialde arabiar petroliodunak) 2,482.

Kontraste eginez, COP21erako prestaketa lanetan ez dute horrelako nahikaririk agertu munduko klimaren okerragotzea beren eskuetan daukaten botere nagusiek. Ez dago beroketa graduen saltan asko barneratu beharrik ohartzeko

bai estatu aberatsek eta bai korporazio nagusiek mahaian jarri dituzten neurriak urrundik ere ahulegiak direla.

Mundutarren % 0,00001 hori

Energiatzko trantsizioa mundu mailan harturik gauza konplexua izanen da, eta garestia. Inbertsio oso handiak eskatuko ditu. Greenpeacek berak 2015ean argitaratutako *Energy [R]evolution analysis* aurreikusi du munduak bere osotasunean 2050erako elektrizitatea osorik berriztagarrietatik jasotzera iritsiz gero, 42 bilioi dolar aurreztuko litzatekeela soilik petrolio kontsumoan. Horrek erakutsiko luke egin beharreko inbertsio erraldoiak errentagarriak direla.

Lurraren Lagunek herrialde txiroen trantsizio beharrei erreparatu diete. Jakin nahi izan dute ea zenbat inbertsio berezi beharko luketen argindarra iturri berriztagarrietatik hornitzeko garapen bidean diren herrialdeetan, hain zuzen klimaren aldaketaren errurik gutxien dutenetan. Hortik iritsi dira, 5,148 bilioi dolarren beharra kalkulatzera.

Abiapuntu hartu dituzte ENE Energiaren Nazioarteko Erakundearen *World Energy Outlook* (2014) txostenean egin dako aurreikuspenak, hautatuz Latino Amerikako, Afrikako eta "Asiako besteak" ataletako herrialdeak. Egia da eskualde batetik bestera alde handiak daudela, baina munduko herrialde txiroenak barne hartzen dituzten heinean oso neurgailu egokia eskaintzen dute.



Hondurasko 'Tiempo' hedabidearen argazkian, Carlos Slim mexikarra, munduko gizonik dirudunenetakoa. Beste hainbat enpresa kutsatzaileraren artean, berak agintzen du Euskal Herriko hondakin gehienak kudeatzen dituen FCCn ere. Aldi berean, 'New York Times' egunkarian akziodun indartsuena da, 'El País' eta komunikazioko beste enpresa globaletan bezala.

Herrialde aberatsen eta multinazionalen mesedetan *business as usual* sustatzen duen ENeren kalkuluak izaki, *World Energy Outlook*ek aurreikusiten ditu mundu osoan handituko diren elektrizitate eskariak, populazioaren eta jarduera ekonomikoaren hazkunderari lotuta. Horren arabera, Hegoaldeko herrialde txiroetan energia eskaria izugarri handituko omen da datozen urteetan, aberatsen aldean apal segitu arren.

Aldiz, ENEk eskari berriak gehienik iturri fosiletatik asetzea aurreikusten duen bitartean, Lurraren Lagunek kalkulatu dute herrialde txiroek falta duten energia hori guztia berriztagarriek hornitzea, horretarako erabiliz era deszentralizatuan antolatutako iturriak, bertako gizartearen kontrolpean antolatuak.

Garapen bidean diren herrialdeek energia asko eskuratu dezakete eguzkiaren eta haizearen indarretik, haize erroten eta panel fotovoltaikoen bidez, horiek metatzeko azpiegituraz osatuta. Hidraulikoari dagokionez, turbina txikiez landa dagoeneko eraikita dauden urtegiek sortutako energia kontabilizatu dute, berririk eraikitzea aurreikusi gabe. Zenbait lekutan geotermiaren ahalak ere sartu dituzte kontuetan.

Informeak nabarmentzen du mingarriki injustua dela munduan 90 enpresa handi direnean klimaren aldaketa eragiten duten isuriaren bi herenaren errudunak, horien etekinetatik aberastu den "munduko populazioaren % 0,00001ak beretzako gordeta edukitzea klimaren hondamendia konpondu lezakeen aberastasuna".

2011n International Forum of Globalisation elkarteak plazaratu zuen ildo beretik *Outing the Oligarchy* (Oligarkiari moztzea kenduz) ikerlana, zeinetan izen-abizenek markatzen baitzituen klimaren krisian erantzukizun berezia duten 50 aberats handiak.

Amerikako Estatu Batuetakoak, israeldarrak, errusiarrak, europarrak, txinatarrak.... beroketa globalaren supiztailerok ez ditu ezagutzen oinezko herritarrak, kenduta bere ongile irudia ondo landu duen Bill Gates. Baina Carlos Slim, Lakshmi Mittal, Roman Abramovitch, Bernard Arnault eta abarrek, beren konpainietako batzuekin planeta berotzen dute eta berenak diren hedabide eta espektakulu korporazioekin herritarrak despistatzen sakoneko arazotik. ■



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Pascal Gaigne, konposatzailea

«Oso interesgarria da isiltasuna: dena entzuten duzu, baita zure beldurrak ere»

Donostia, lurpeko lokal bat, argi izpi bat sartzen uzten duen leiho modukoa, pianoa, pantailatzarra, bozgorailuak, sarien apala, partiturak, liburuak, DVDak, kartel zahar batzuk, besaulki erosoak...

Ongi etorri Pascal Gaigneren burbuilara.



Sustrai Colina

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Soinu banda orok lehen notak ditu abiapuntu. Bizitzak haurtzaroa eta gaztaroa.

Gure aita militarra zen, militar bitxia baina militarra. Martxa militarrekin esnatzen genituen igandeak, baina aldi berean, Brassens, Brel eta musika klasikoa entzuten ziren gurean. Aitaren ofizioaren erruz sarri mudatzen ginen hiriz. Izugarri gogorra egiten zitzaidan, ez lagunik ez koordinadarik, aldiro hutsetik hasi beharra. 10 urterekin, ordea, eskolako maisu batek musikarako dohaina antzeman zidan, 12rekin nire kabuz gitarra jotzen hasi nintzen. Nire gurasoentzat ezinezkoa zen bizitza musikari ematea, aisia baizik ezin zitekeen izan, libertimendu hutsa, baina unibertsitate-rako orduan ez nien aukerarik utzi: "Musika fakultatean eta kontserbatorioan sartzen uzten didazue ala etxetik noa!". Hiru urtez babestu ninduten, unibertsitateko lagunekin kontzertuak ematen hasi arte. Nire argazkia *Sud-Ouest* egunkarian ikusi zutenean lasaitu ziren. Beste garai batzuk ziren, musikatik bizirauteko askoz sasoi aproposagoak. Arlo guztietako kontzientzia politikoa garrantuagoa eta hedatuagoa zegoen, militantzia ekitaldi kulturaletarako amua zen. Urrezko aro bat ezagutu dugu Euskal Herrian, denboraren higatzearekin eta

moldea sistematizatzarekin gainbehera etorri den urrezko aro bat.

Nola eragin dio denboraren higatzeak musikarekiko zure harremanari?

Hastapenean gitarra-jotzaile izan nahi nuen, jendearekin elkartu, kontzertuak eman. Batere gustatzen ez zitzaidan jendartetik ihes egiteko nire burbuila zen musika. Ihesbide horri esker jasaten nuen gainontzekoa. Betitik baztertu dut enpresan, nagusiaren menpe, lan egitea. Ezinezkoa zitzaidan, pentsaezina. Garbi nuen musika zela independentziarako atea. Alabaina, ez nuen nire burua konposatzaile irudikatzen. Ez zitzaidan gogorik falta, baina aukeratu bakanen mundua iruditzen zitzaidan. Egun batez, alta, ezagun batek film baterako musika eskatu zidan, hura gustaturik beste baterako enkargua egin zidaten, antzerkirako eta orkestrentzako konposatzen hasi nintzen, eta gauzak zer diren, benetan gustatzen zitzaidana horixe zela ohartu nintzen. Orduan ikusi nuen jendaurreko jardunak ez ninduela erakartzen, kontzertuetan ez nintzela sekula erabat gustura sentitu, arraroa zitzaidala jendaurrean eseri eta jotzea. Geroztik, lan-erauntsiak eta lehortek pasa ditut, batzuetan ezetz esateko aukera-

rik ez ukaiteak nire independentziaren ideia berrikustera eraman nau, baina hala ere, akzionisten batzarren menpe dauden langile esklabizatuak edota langabeak baino libreago bizi naiz.

Oholtzan zein estudioan, beti itzalean, ia beti besteentzako.

Ikusgarritasunak ez nau erakartzen. Nahiago dut zuzendari eta muntatzai-leekin eskuz esku lan egin, talde-lanean nire hondar aletxoa jarriz eragin. Horrek nire burua nire lanaren bidez promozionatzeko aukera ematen dit. Ez dut idazkaririk edo agenterik behar nire karrera kudeatu eta nire dohainak saltzeko. Norbaiti nire soinu banda bat gustatzen bazaio, hots egingo dit. Hori da nire neurria. Izan ere, kea saltzen ibili zaitezkeen arren, gurean ez dago formula ziurrik, inork ez daki zer izango den arrakastatsu. Gustuek eta intuitzioak zeresan handia dute, zuzendariak proposatzen dizunaren eta zuzendariari proposatzen diotzunaren arteko truketak hartzen duen bidea erabakigarria da, estilo bat definitu behar duzu, nortasun propioa izan. Horregatik diot soinu banda ona harritzen nauen musika dela, filmaren osotasunari burutik pasa ez zitzaidan funtzionatzeko modu bat ema-



Pascal Gaigne

1958, Caen (Frantzia)

Musikari eta konposatzaile polifazetikoa. Oholtzak utzi eta estudioan konposatzen dabil azken aldian. Nazioarteko orkestra, talde instrumental eta bakarlariak kontzertuan interpretatzeko piezak, edo antzerkirako, arte erakusketetarako zein zinemarako soinu bandak konposatzen ditu. 80 film baino gehiagotan hartu du parte (*El Sol del Membrillo; Azul oscuro, casi negro; Lasa y Zabala; Loreak...*), zuzendari ospetsuekin lan eginez eta sari andana eskuratuz.


teko gai dena, horma gotor baten erdian leiho bat zabaltzen didana.

Hori da soinu bandaren egitekoa?

Niri gustatzen zaidan zinerako musikak pantailan ikusten ez denari buruzko pistak eman behar ditu, emozioak hauspotu, irudi bihurtu ezin diren gidoiaren xehetasunak helarazi. Bide paraleloa da, sentimenduetarako lasterbidea. Zinema europarrean filmeko pertsonaia da musika, sekuentziak eraldatzeko dago, istorioari bere kutsua emateko. Hollywoodeko film gehienetan, aldiz, komentaria hutsa da, irudiek erakusten dutena azpimarratu baizik ez du egiten. Hori ere egin dezaket, baina ez zait interesatzen. Izan ere, artisautza lana da gurea, zapatariarena bezalakoa. Aldiro zapata ezberdin bat egin nahi nuke, patroia pentsatzetik hasita azken orratz puntadaraino, baina zapata gorri industrialaren eske itsututa etortzen bazaizkit moldatzen naiz, badakit egiten. Gure lanean, ezinbestekoa baita ezer demonstratzen ez saiatzea. Musikak pelikulan funtzionatu behar du, eta musika dena delakoa izanda ere, filmak funtzionatzea da axola duena.

Zuk nola funtzionatzen duzu?

Sortzaile zein entzule gisan, dibertsioa eta sorpresak ditut gustuko. Beti gauza bera egiteak nekatzen nau. Nire buruarekin oso erraz aspertzen naiz. Patroiak agertzen zaizkidala, ezagutzen ditudan bideetan barna noala, jabetzen naizenero aldaketa eskatzen dit senak. Pieza interesgarrienak lur arrotzak deskubrituz sortu ditut. Zure burua etengabe berritzea da osasun mental eta artistikoaren giltza. Gurea ez da torlojuak egitea. Aniztasuna behar dut eta horregatik egiten dut lan zinerako, baleterako, antzerkirako, orkestrentzako, arte erakusketetarako... Betikoa ezberdin egiteko zidorrak atzeman ezean berehala itotzen naiz. Hala, deseraikiz eraikitzen saiatzen naiz, ez dadila ezer sobratu eta ez dadila ezer falta. Metodori dudak galdetzen didatenean munduko metodo guztiak eta aldi berean bakar bat ez daukadala erantzun ohi dut. Eseri eta lan egitea baita metodo fidagarriena. Metodo bakarra duenak, ordea, aldiro arau berberak aplikatzen dizkio bere buruari, eta konturatzerako jausten da errepikapenaren inertzian. Etengabe joko-arauak aldatzea da gakoa, gaur hemendik ekitea, bihar beste hura



“Gure lanean, ezinbestekoa da ezer frogatzen ez saiatzea. Musikak pelikulan funtzionatu behar du, eta musika dena delakoa izanda ere, filmak funtzionatzea da axola duena”



GAUILUNAK

probatzea. Bizitza daramat musika sortzen, niretzat ez da lan soila, beharrezana ere bada.

Isiltasuna ere beharrezana da?

Frantzia sortua naiz, urte mordoak bizi izan naiz han, eta Donostiara etortzean sor eta gor geratu nintzen zarata eta zalaparta etengabearekin. Ihesbidea eskatzen didan sufrimendu handia da niretzat. Zinemak eta telebistak etengabe darabilte musika jendea alerta mantentzeko, saltoki zein igogailuetan musika jartzen dute... ez dakit zarata erauntsi horrek ez ote digun garuna atrofiatzen. Oso interesgarria da isiltasuna: dena entzuten duzu, baita zure beldurra ere. Jatetxe batean jendea zein baino zein ozenago ari denean altxa eta "ixo!" oihukatzeko zorian geratzen naiz, eta zinean ere, behar-beharrezkoa den musika soilik jartzea dut gustuko. Musikak ez badu garrantzirik, ez badu deusetarako balio, zertarako jarri? Isiltasunak ere badu bere funtzioa.

Zaratak ez ezik, sariak ere eragiten dute zalaparta.

Harreman gatazkatsua dut sariekin, arantzaz betea. Badute alde ederra, atsegina. Zure lanaren aitortza dira, txalo jotzen dizute, mundu guztiak zoriontzen zaitu... denoi gustatzen zaizkigun gauzak. Alabaina, badakit nola funtzionatzen duten, badakit haizea bezain aleatorioak direla, injustuak izan daitezkeela. Horregatik diot lana ukaitea dela garrantzitsuena, irabazitako sari guztiak aldatuko nituzkeela lanagatik. Lana baduzu aktibo zaude, zure musika aintzat hartzen den seinale da. Izan ere, sariak satisfakzio pertsonalez betetzen zaituzte, baina lanez? Ezagutzen ditut

oso sari arranditsuak irabazi dituzten konposatzaile eta aktoreak lanik gabe, basamortuaren zeharkaldian bizirauteko borrokan ari direnak. Saritutako filmarekin gehiegi identifikatzen zaituztelako, saritutako soinu bandaren estiloak etiketatzen zaituelako, jendeak ez dakizula besterik egiten sinetsi dezake. Opari pozoitsuak izan daitezke sariak. Ez dizute bizitza konpontzen eta izorratzen ahal dizute.

Asperdura

"Sortzaile zein entzule gisan, dibertsioa eta sorpresak ditut gustuko. Beti gauza bera egiteak nekutzen nau"


Gaur egun musikarik onena zinean egiten dela zioen Joserra Senperenak.

Denetik dago. Zorionez, konposatzaileen eskua geroz eta nabarmenagoa da, sortzaileen nortasunez zipriztindutako geroz eta pieza gehiago dago. Zine industrialera salto egiten badugu, ordea, nekezagoa da dena. Musika gustatzen zaie ala ez erabakitzeke hamabost pertsona daude bileretan eta zuk ez dakizu hamabost horietarik hamabi nortzuk diren, zer funtzio duten... Ez dakizu deus. Alta, denek dute iritzia emateko eskubidea, izugarrizko kontrol afana daukate eta erabateko arrakastaren formula baizik ez dute buruan. Gainera, telebistak tartean daudenez, euren pantailarako ekoizpenak nahi izaten dituzte, moldeak agertzen dira, eta asko kostatzen da soinu bandak egitea ez dela torlojuak ekoiztea ulertaraztea. Eskerrak orain,

teknologiaren garapenari esker, oso pieza interesgarriak egin daitezkeen medio gutxiarekin. Horrek errotik aldatu du zinemaren panorama. Komertzialtasunak ikuspegia murrizten baitu, plano itxi, kalitatea leihatilan neurtarazi. Bankuarentzat oso irizpide interesgarria izango da, baina jendarteak ezin du pelikula baten maila bildu duen sosaren arabera soilik neurtu. Horrek best-sellerretara dedikatu eta poesia edo saiakera kondenatzea esan nahi du. Izan gaitzen zentzudunak, goazen best-sellerretan irabazia poesia eta saiakera filosofikotatik inbertitzera, film komertzialetako etekinak esperimendatzeko baliatuz. Hori egiten ez duguno, ideia anitz galtzen ari gara bidean.

Eta teknologiaren eta sormenaren bideak gurutzatzen direnean?

Gizakia gizaki denetik eragin du teknologiak sorkuntzan. Ez da azken 30 urteetako sorpresa. Askok ikertu dut musika elektronikoa, nire buruaren jabe izateari bezainbateko garrantzia ematen diot nire lan tresnaren jabe izateari. Teknologia onartzen eta kontrolatzen ez baduzu, hankapean hartzen zaitu. Hori hala, teknologiak gure lan-moldeak erraztu ditu, trukeak sinplifikatu, aurrekontu txikiko egitasmoak aukera eman, baina zoritxarrez, tekla zapaldu eta melodia osoak ateratzen direla uste du orain jendeak. Ahantzi dugu sortze prozesua ez dela hain muturrekoa, denboraren pausa ezinbestekoa dela. Askotan gertatu zait soinu banda bat bukatu eta "orain bazekiat zer egin nahi dudun, berriz hasi behar nuke" pentsatzea. Baina ez, dena azkarragoa, berehalakoagoa, bihurtu du teknologiak, eta jakina, abiadurak inertziara darama. Izan ere, programa



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

teknologikoek egin behar duzuna iradokitzen dizute, daukatena proposatzen dizute besterik existituko ez balitz bezala, eta ohartzera-ko, amua irentsi eta besterik ez dagoela sinesten duzu. Horregatik saiatzen naiz tresna kontrolatu eta ordenagailuak eskaintzen dizkidan aukera zein soinuak eraldatzen, niretik eta nire neurrira egindako soinu elektronikoak fabrikatzen eta estandarretik harago bizitza badagoela ez ahanzten.

“... Elkarbizitza jokoan eta zu berriz bertso ttikietan...”

Makinak nota guztiak afinatzen ditu eta ez da sekula nekatzen. Makinari kasu eginik esaldi musikal osoak konposatu ditzakezu arnasarik gabe. Ez dizu eragozpenik jartzen, zuk idatzi eta berak jo. Musika arte bizia da, ordea, ez nota zerren-



Azken hitza: Xarmak

“Musikaren lengoaia lausoa izateak egunero irekitzen dizkizu ate berriak. Bakoitzaren bizipenen arabera oihartzunak eragiten ditu musikak, hori da bere xarma. Hori eta siestatik pieza berria buruan esnatzea. Askotan erlaxatze hutsak garunean duzun nahaspila askatzen dizu, bestelako bizimodu bat ahalbidetu, jendartearen moldeetan ez sartzeko askatasun tanta bat oparituz”.

da, ez matematika. Giza-kiaren interpretazioaren esku dago, inperfekzioaren menpe. Ez daude esaldi musikal bat berdin joko duten bi artista. Bakoitzak dauka bere sonoritatea, bere musikalitatea, bere nortasuna. Hori aintzat ez hartzea musikariaren partez makina ikustea da. Makinak ongi daude, beharrezkoak dira, baina ezin dugu giza-kiaren eskuaren premia kolokan jarri. Ezin gara jendarte hau dena ahanztera eramanez zurrunbiloan ito. Antipodetako baina garestixeagoa izan arren, auzoko herrian ekoizten diren zapatak erosteak merezi duela ulertarazi diguten begiekin erreparatu behar zaio musikari. Urtetan, kontsumitzea baizik ez dugu izan buruan. Kontsumitzen dugunaren gibelean zer dagoen aztertzeke garaia da. ■



KULTURAREKIN GOZATU
ABANTAILA GEHIAGOREKIN.
KAIXO KULTURA
ADIERAZGARRIA DUTEN
DENDAK, ANTZOKIAK... BILATU.

Lortu **10 €-ko** deskontua liburuetan, diskoetan, dvd-etan... edo **15 €-koa** ikuskizunetan.

Aukeran dituzu euskararako deskontu bat eta gaztelaniarako edo beste hizkuntzetarako beste deskontu bat eta **15 €** ikuskizunetarako, kontzertuetarako...



BONUA | **20€+10€**
EUSKARAZ



BONUA | **20€+10€**
MUNDUAK



BONUA | **25€+15€**
ZUZENEAN

Kanpainara abxikitako establezimendu bakoitzak dagozkion bonuak eskuragarri ditu.

Kulturarekin gehiago gozatu nahi baduzu, ESKA ITZAZU.



Kultura handia, salneurri txikian

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA





COP21



Mikel Zurbano

EHUKO IRAKASLEA

Bizi dugun krisi multidimentsionalak kapitalismo globalaren mugak erakusten ditu. Krisiak jota dago kapitalismoa arlo ekonomikoan, sozialean, zaintzan, baita ekologiaren eremuan ere. Kapitalismoaren egungo kudeaketa liberalaren ordaina adar askotako krisia da, eta bere adierazpen larriena agian ingurugiroan eragindako kaltea. Zehazki, klima aldaketa krisi ekologikoaren ispilu nagusia da eta horren apartekoa bere eragin ahalmena, ezen kontzientzia globala eraiki den horren aurkako erantzunaren beharra aldarrikatuta.

Mendebaldeko herrialde garatueta-ko gobernuen erantzukizuna bistakoa da eta orain arte ez dute behar bezalako neurriak hartu fenomenoari aurre egiteko eta karbono gabetze prozesua itzulezinezkoa bihurtzeko. Kyotoko protokoloaren gabeziak luze eta zabal hitz egin da azken urteetan. Mugimendu sozialen aldetik eta lan mundutik ere aldaketa klimatikoaren aurrean eman beharreko erantzunari ez zaio ipini behar zuen arreta guztia. Naomi Kleinek dio ohartu beharra daukagula gure gizartearen oparotasuna ekarri zuen iraultza industrial koloka jartzen ari dela bizitzaren euskarri ditugun natur sistema guztiak. Erakunde ugarien estimazioek aurreratzen dute beroketaren eragin globala oso larria izango dela mende honetan zehar, ekonomia dinamikaren eta paradigmen aldaketarik ezean. Esaterako, Energiaren Nazioarteko Agentziak mende amaiera-ko tenperaturak sei gradu gora egingo duela estimatzen du.

Beroketaren aztarnak bistakoak izaten hasi dira dagoeneko, baina bi gradu gehiago igoko balitz munduko batez besteko tenperatura, 280 milioi pertsonen bizilekuak urpean gera litezke eta lau graduko igoerak 600 milioienak ureztatuko lituzke. Parisen

Beroketaren aztarnak bistakoak izaten hasi dira dagoeneko baina bi gradu gehiago igoko balitz munduko batez besteko tenperatura, 280 milioi pertsonen bizilekuak urpean gera litezke eta lau graduko igoerak 600 milioienak ureztatuko lituzke

klima aldaketaren gailurrari, COP21 delakoari, hasiera eman zaio azaroaren 30ean. Gailur horretako asmoa da Kyotoko protokolutik (1997) harago joatea eta herrialdeentzat loteslea izango den beste bat sinatzea. Honen helburua beroketa globala industria aurreko aroarekiko bi graduko muga ez gainditzea litzateke eta horretarako herrialdeek emisio kutsakorrek gutxitzeko konpromiso irmoa hartu beharko lukete.

Nolanahi ere, orain arte gailurra presatzeko bidean egindako herrialdeen arteko topaketa eta hurbilketa prozesuetan ikusi ahal izan dugunez, helburu hori betetzea zaila izango da. Nazio Batuen Erakundeko 195 estatuak 150ek klimaren desregulazioaren aurkako borrokan egingo duten ekarpena aurreratu dute, etorkizun iluna iragaritzen baitute. Hasteko, ekarpen horiek borondatezkoak izango dira, beraz ez dira lotesleak izango. Gainera, estatuen konpromiso horiek 2030 urtera bitartean tenperatura 2,7 gradu baino gehiago igotzea saihestuko lukete eta, adituen arabera, zenbaki garai horrek ezinezko egingo luke mende amaierako 2 graduko topearen barruan kokatzea tenperatura igoera. Sindikatuak, GKEk eta gizarte mugimenduek urriaren 20an Bon hirian aurkeztutako azterketa alternatibo batean ere konpromiso ahul hori salatu zuten.

Karbono apaleko eta erregai fosilik gabeko energia ereduaren trantsizioarako COP21 gailurreko bi helburu behinenak berme guztiekin lotzea ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa. Gailurraren agertokitik kanpo dauden beste irizpide batzuk kontuan hartzea ere beharrezkoak dira, besteak beste, erregai fosilei emandako diru laguntzak alboratzea, garapen bideko herrialdeei finantzaketa erreala bideratzea eta energia berriztagarrien aldeko erabateko konpromisoa hartzea. ■

Hirigintzaz bezainbeste indarkeriaz

Interes politiko oinarritzakoa jabetze pribatuaren balioen defentsa denean, jabetze pribatuaren interesek gidatzen dituzte botere erakundeak; baita erakundeok publikoak badira ere. “Udalari dagokiona da eraiste baimena eskatzen denean baimen hori ematea, hori ez da aukerakoa. (...) bestela prebarikazioa litzateke” (epailearen susmoa bestelakoa den arren). Eta hala, Kortxoeneako auzia “partikularren arteko zerbait” bilakatzen da. Kultura zinegotzi Miren Azkarateren hitzak dira. Espekulatzailen praktika mafiosoak bezainbeste izutzen du erakunde publikoek praktikiari eman dioten babesak. Demokraziaren kontraesanik latzena ekonomikoa da; beldurra, berriz, kulturarena.

Hustu. Eraitsi. Eraiki. Espazioa eta bere ekoizpena, munduko ekonomiaren azken hedapen zikloan jardura gakoa izan dira. Bestela esanda, kapitalismo globala espazioaren ekoizpen eta suntsiketa prozesuaren bidez ahalegindu da berezko dituen kontraesanak gainditzen. Eta hegemoniaren abaroan saiatzeko den kontsentsuak bezain beste ezaugarritzen du indarkeriak hirigintza neoliberalak. Txanpon beraren ifrentzia.

Espazioaren jabetza eskuratzeko suntsikorra eta asimetrikoa den borroka-dinamikak bere baitan dakartza gatazkak, kontraesanak, eta gaitzitu ezinezko interesen norgehiagokak. Indarkeriak zorrotz aldarazi du populazioaren jokabidea, eta ondorioz, hiria ulertu eta egiteko moduak ere aldatu dira. Indarkeriak harreman sozialen haustura ezarri du. Lurralde eta formak estratifikatu ditu, muga material eta birtualak gauzatu; identitate, klase nahiz genero gatazkak ber-ezaugarrituz. Izuaren estetika bir-diseinaturiko hirietan bizi gara. Beldurra are handiagoa izan, orduan eta zatikatuago sozietatea. Eta zatikaturiko hiria erraz menderatuko du izuak. Ez da indarkeria



Markel Ormazabal

IDAZLEA

Kortxoenea Gaztetxearen kaleratzean jazotako indarkeria, baina, esplizitu eta agerikoa da. Zalantzarik sortzen ez duena, forma eta moduengatik berria izan arren inguruotan. Seul, Delhi, Shangai, Pekin, Londres, Madril, Bartzelona... eta orain, baita Donostia ere

oro, ordea, halakotzat onartzen. Balizko kriminalitatearen gorakadaren ondorio den segurtasun eskari baztertzaila eta orokortuan dugula arreta, ezkutaturik edo zokoraturik hedatzen dira zatiketa, segregazioa, gentrifikazioa, lurraldearen jabetze espekulatioa, ingurugi-

roaren degradazioa... Alegia, auzoan eraikin berria altxa eta, biharamunean kafea nahiz alokairuak gora egin duela-ko lekualdatu behar izatea, indarkeria daiteke.

Kortxoenea Gaztetxearen kaleratzean jazotako indarkeria, baina, esplizitu eta agerikoa da. Zalantzarik sortzen ez duena, forma eta moduengatik berria izan arren inguruotan. Seul, Delhi, Shangai, Pekin, Londres, Madril, Bartzelona... eta orain, baita Donostia ere. Kultur alternatibo eta autoeratuaren ikur bilakaturiko eraikinaren eraistearen ondotik, agintariak hain gogoko duten mundu mailako zerrenda horietako batean sartu da Donostia. Hirigintza eremuko espekulazio-kontuetan, *ukabil-amerikar* eta burdin-makilekin egiten den indarkeriaren kultura estreinatuta duten hirien zerrendan, hain zuzen ere. Berriki, *Academy of Urbanism*-Hirigintzako Akademiak ematen duen Europako hirigintza sari bat irabazi du Donostiak. Epaimahaiak hiriko jardunbide onen adibideak ebaluatzen ditu hainbat arlotan, hala nola: lidergoia eta gobernamendua, erkidegoa, ongizatea eta ikasteko ahalmena. Eta ikasi dugu baigure *Donostia School of Medicine* propio honetan. Kaleratze agindurik lortu ez duen enpresariak kosta hala kosta eraitsi asmo duen eraikina husteko soldatepeko asaltanteak kontratatzea, urruneko kontua zitzagun; nahiz eta antzemanak ziren halako praktikak: Bilboko *Maison 13* etxe okupatuan lehenik (2014), eta Donostian bertan *Itsas Gain* gune sozial okupatuan gero (2015). Irakurlea ohar bedi, ez gara segurtasun enpresa pribatuko langileez ari; diru truke urkoa jipoitzeko prest den uniformerik gabeko gizon usteko koadrilaz baizik. Soilik diruaren meneko, ordaintzailea autoritate bakar. Halakoek ebatsi dute, *Kulturaren Hiri-buruan*, kultura berari buruzko auzia. ■

Askatasunak ez du plaza hori merezi



Iván Giménez

KAZETARIA

@IvnGimenez

Historian zehar, sarraski larrienak askatasunaren izenean gauzatu dira. Balentriarik miresgarrienak ere bai.

Hitlerrek Polonia inbaditu zuen herri alemaniarrentzako hil ala biziko gunea (*lebensraum* famatua, gure artean ulertzeko) lortzeko ahaleginean. Askatasuna, azken finean, ia giltzapeturik bizi omen zen nazio handi batentzat.

Nazioarteko Brigadak Gerra Zibilera etorri ziren Errepublikak defendatzera, antifaxismoaren keinu erromantikoz, askatasunaren banderapean. Frankismoaren azken hatsetan Jarchak sortu zuen ereserkiak *Libertad sin ira* izenburua zeukan. Ezin zuten imajinatu 30 urteren buruan UPNk askatasunaren aldeko ereserki bera erabiliko zuela 2007ko “Nafarroa ez da saltzen” lelopean eginiko manifestazio erraldoi xelebrean.

ETAk Euskadi Ta Askatasuna esan nahi du. Bere atentatuen aurka Libertad Ya erakundea sortu zuten.

Garai batean (agian gaur ere) Espainia bazen bat: handia eta libre!; beste askok Gora Euskadi Askatuta aldarrikatzen zuten (duten) bitartean.

Berlusconik bere lehen hauteskundeak irabazi zituen Polo delle Libertà deitzen zen koalizio baten bitartez. Italiatik atera gabe, askatasun hitzarekin inoiz konposatu den abestirik zirraragarrietariko batek *Bandiera rossa* izenburua dauka: “Evviva il comunismo e la libertà!”.

Askatasun-gabetzea da norbait espetxera bidaltzen dutenean erabiltzen dugun eufemismoa. Askatasuna benetan zer den dakien norbait baldin badago... preso da. Ez beste inork, Andres Calamaroren abesti baten aburuz.

Googlen *libertad* hitza jartzen baduzu, lehen sarrera da Libertad Digitalaren webgunea. Ba al dago kontraesan sakonagorik? Askatasuna tekleetuz gero, Berriozarko kale bat, Iruñerriko putetxerik ezagunenaren atzealdean dagoena. Prostituzioa, gure garaiko –eta lurreko– esklabotasuna. *Freedomekin* proba egiten badugu, YouTube sartzeko aukera. Hau al da geratzen zaigun askatasuna?

Gauzak horrela, askatasun edozer gauza izan daiteke, baita kontrakoa ere. Sarritan, hain justu, bere jatorrizko esanahiaren kontrakoa.

Agian, hipotesi honekin bat etor daiteke Iruñeko Conde Rodeznoren plaza birbataitzeko azken ahalegin sutua. Askatasun plaza, Serapio Esparza arkitektoaren ordeez.

Askatasuna, beraz, Mola eta Sanjurjoren gorpuetuei ohorea egiteko, ala guztiz kontrakoa adierazteko? Nork daki... Zer da askatasuna? Plaza hori ez da libre izango (eta Iruñea bera ere ez) mausoleo tetriko hura suntsitu arte.

Ez dakit Serapio Esparza gaixoak Iruñeko plaza bat merezi ote duen. Aldiz, argi eta garbi daukat askatasunak ez duela plaza hori merezi. ■

Minberak



Itxaro Borda

IDAZLEA

ETBko gaztelerazko *Teleberri* emanaldian entzun nuen Parisko sarraskiaren salatzeo agiri bateratu baten plazaratzea ez zutela lortu Gasteizko Legebiltzarreko parlamentariak. Ez ziren akordiora iritsi sozialistak, mende erdian lur hau ukitu zuen ondorio kriminalekiko fanatismo oldea inplizituki aipatzen zuen perpausa EAJk eta EH Bilduk baztertu zutelako.

Pantailaren aitzinean ttattit geratu nintzen: zepoan geunden, kontxo, berunezko txapa ideologikoa astuna hor zegoen oraindik, batasuna ezinezkoa baldin bazen Parisko atentatu itsu eta odoltsuak gaitzesteko. Ikuskizun penagarria,

demokrazia nagusitu arren. Minberatasunek indarrean diraute argiki eta batzuetan gaizki plazatuak direla ezin uka.

EAJk eta EH Bilduk, etxeko terrorismoaren errealitatea begi hotzez ikustea pasatua neutraltasunez aztertzeke ekina onartu beharko dute noizbait. Bake prozesua egiaztatuko da bestearen –etsai ohiaren?– zibilbor-zauria norberarena bezain garrantzitsua dela pentsatuko dugun unean.

Lasai: aste bete eskas eta fanatismoarekiko agerpenak ezabatuz alderdi guztiek adostu idazkia atera zuten. Ez dugu etsitzeko arrazoirik, iragan hurbilean ez zitzaigun ezer gertatu. ■

MONDRAGON, maiuskulaz?

Kooperatibismoa enpresa egiteko, pertsonaren garapena sustatzeko eta komunitatea eraldatzeko potentzialik handiena duen sistema dela sinesten dut. Horregatik inporta zait bere "osasuna".

Baieztapenaren ostean, goazen kooperatibismoan inguruko adibiderik esanguratsuenera, Mondragonera; eta jar dezagun arreta ezaugarri honetan: ea kooperatibak, oraindik ere, proiektu sozial eraldatzaile bat gauzatzeko plataforma diren ala enpresa demokratikoagoak izatera mugatu diren.

Hasteko, aitortu behar da Mondragonek praktika enpresarial ezberdin eta justuago bezala gauza oso inportanteak egin dituela. Baina azken urteetan, eta hau ere egia da, araututa daukan "kooperatibismoa" egitera heldu da nagusiki, ez da hortik pasatu. Hori da, behintzat, hautematen den Mondragon: protagonismo eta anbizio eraldatzaile txikia daukan esperientzia bitxia. Beraz, garai historiko honen justizia eta etika erronkekin konexio ahula daukan esperientzia kooperatibo barea. Kontua ez da Mondragoni arazo guztietarako irtenbidea eskatzea, baina bai beste lidergo maila bat, bestelako presentzia bat ekonomia eta gizarte berri baten bila.



Andoni Mujika

IRAKASLEA

@mujikaandoni

Mugimendu kooperatibo honetara hurbiltzen denari Mondragon zenaren biografia erakusten diogu: testigantzak eta historia. Herentzia baino ez, ederra, baina herentzia

Badirudi Arrasatekoa garai historiko jakin baterako alternatiba sozio-ekonomikoa izan zela. Eta nolabait esateko, gizarte eraldaketa terminotan, hori historia dela. Uste dut, gaur egun, pertsonak mobilizatzeko eta hauen ilusioekin konektatzeko sedukzioa eta

proposamenak falta zaizkiola. Arrasateko kooperatibismoak, dagoeneko, ez du ematen gizarte eraldatzeko plataforma denik. Amets horiek, inon garatzekoan, beste zelai batzuetan praktikatzen ditu orain jendeak. Egia da, bestalde, identitate krisia ez zaiola Arrasateri bakarrik gertatu. 1950eko eta 1960ko mugimendu sozial askok dakite zer den ahultze prozesu hori: eredu lizundu zaie. Zimeldu ez, baina lizundu bai.

Arizmendiarrietak "pertsonak eraldatu ingurua eraldatzeko", zioen. Ekonomia, komunitatea, pertsona, justizia eta elkartasunaren baloreak ardatz dituen mundu osoko erreferentziazko mugimenduak ez du hori transmititzen. Mugimendu kooperatibo honetara hurbiltzen denari Mondragon zenaren biografia erakusten diogu azken urteotan: testigantzak eta historia. Herentzia baino ez, ederra, baina herentzia. Eta helburua ez da Arrasateri ezer egiten ez duela salatz, Arrasatek asko egiten du. Kontua da ingurua eraldatzeko plataforma den ala ez aztertzea, edota izan nahi duen.

Ukaezina da protagonismo eta norabide kooperatibo erakargarri bat edukitzeak Mondragoni, eta Euskal Herriari, onurak ekarriko lizkiokeela enpresa, pertsona, ekonomia, komunitate eta eraldaketa eremuetan. ■



GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2015



www.bertsosale.eus

EIBAR Abenduak 6

Astelena pilotalekua, 17:30

Arkaitz Oiarzabal Agirre "Xamoa"

Felix Zubia Olaskoaga

Iñaki Gurrutxaga Zubimendi

Jon Maia Soria

Mikel Artola Izagirre

Nahikari Gabilondo Mendizabal

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean edo egun berean leihtailan.

Finalaurrekoak








Laguntzailea: **ARGIA**

Euskararen Nazioarteko Eguna



Zortziko txikia
Bertsolaritza
eskolan



KLASIKOEN
IRAKURRALDIA



Euskaldunon Egunkariak 25 urte

EUSKARAZKO EGUNKARIA ALDARRIKATZETIK EGITERA

25 urte dira abenduaren 6an Euskaldunon Egunkariaren lehen aleak argia ikusi zuela. Herritar askoren izerdi eta ekarpenei esker izan zen. Nola iritsi zen baina jendea ia desagertzeaz zen ARGIAren bueltan bildu, hau indartu eta urte gutxian euskara hutsezko egunkaria, kale edo bale, egin egingo zuela erabakitzea? Zein suk mugitzen zituen?



Lander Arbelaiz Mixelena

@larbelaitz

ARGAZKIAK: ARGIA ARTXIBOA

“Ekipo gaztea ginen, gehienek familiarik ez geneukan, beraz, konpromisorik gabe, eta eguna han pasatzen genuen. Donostiako Egia auzoko Kata tabernan gosaldutxo, bazkaldu eta askotan afaldu egiten genuen”. Pello Zubiriaren hitzak dira. “1980ko hamarkadan ARGIA metatu genuen ezagutza eta azpiegitura guztia jarri genuen *Egunkaria* aurrera ateratzeko”. *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera ulertzeko, baina, hamarkada osoan ARGIA euskal prentsaren motor lana egin zuen nukleoak elkarrekin egindako bidea ezagutu behar da.

Joxe Mari Ostolaza 1977-78 bueltatik zebilen proiektu barruan, oraindik aldikariak *Zeruko Argia* izena zuenean eta kaputxinoen esku zela. Baleren Baikaioa joan zitzaion bila Ziburura. Enpresa ikuspuntutik oso gaizki zegoen, jasotzen zutenen erdiek ordaintzen baitzuten eta egiturari ezin eutsi. “Hortik bizi ez, baina horretara jarriko zen norbait nahi zuen Balerenek”. Eta Ostolaza jarri egin zen. Kaputxinoek utzi egin nahi zuten, eta berak, beste langile batzuekin batera, hartu.

Joxemi Zumalabek Egiako fotokonposizio enpresa batean egiten zuen lan. *Zeruko Argiak* bertan egiten zuen aurreinpresioa. Ostolazak lan bera egitera aldizkarira joateko proposatu zion. Zumalabek baietz, eta 1980ko udazkenean, azkenean, *Zeruko Argiatik* ARGIAra Zumalabe eta Ostolaza bakarrik pasatu ziren, gainontzeko lankideek pausobat atzera emanda. Panorama zaila zuten: 8 milioi pezetako zorrarekin eta nora jo eduki gabe geratu ziren. Inguruko lagunekin zorretan geratuta egin zuten aurrera, eta jende berria bilatzen hasi ziren.

“Basamortua zen. Kiebran ginen, papera erosteko dirua ere agortu zitzaigun. Orduan indar handiz sartu ziren Josu Landa, Pello Zubiria, Iñaki Uribe eta Jon Barandiaran gazteak; hala, taldea eginez problemak gaindituz joan ginen, urteetako bidean euskarazko pentsaren beti bakardade handia sentituz”.

ARGIA lan egitea “numantino” gisa deskribatzen du Josu Landak Lorea Agirreren *Ipurtargiaren itzal luzea* liburuan. “Elkarrekin egoteak, gaupasak

egiteak, dirua partekatzeak, ‘nirea den guztia zurea da eta alderantziz’ pentsatzeak, azkenean, oso giro afektibo eta humano aberatsa sortu zuen”. Liburuan jasotzen den datuaren arabera, 1981ean hogeita lau zenbaki baino ez ziren kale-ratu. Hala ere, inguruan jendea biltzen hasi ziren: Pablo Sastre, Joseba Alvarez...

Elebitasunaren eztabaidak

Erdarazko prentsak erabateko nagusitasuna zuen orduan ere merkatuan. “Prensa elebiduna deituan agian orain baino euskara gehiago erabiltzen zen sortu zirenean. *Deia* eta *Egin* egin zirenean %10-%20arekin hasiko zirela agindu zuten, eta 1980an galdetu izan bagenu ‘2000an zenbat euskara erabiliko da egunkariotan?’, inork ez zukeen esango %30 baino gutxiago izango zela. Alde horretatik egitura euskaldun hutsak sortzearen teoriko onak ziren Josu Landa eta Joxemi Zumalabe, besteren artean. Gu konturatzen ginen arrazoi zutela. Euskaraz funtzionatuko duten egiturak eta elkarlan sareak sortu behar dira”, dio Pello Zubiriak.



“Beti geure burua defendatzen ibili behar genuen euskara hutsezko asteak egin nahi genuelako”, dio Zubiriak. “Espainolez egiten baduzu egunkaria eta parte batzuk soilik euskaraz, Iparraldean kondenatzen ari zara; harri-garria da nola ez dagoen debaterik gai honekin. Ezker abertzaleak egunkari bat egin eta Iparraldean horrela kanpoan uztea eskandalua zen guretzat”, dio Ostolazak, gerora aitortuz tentsioak izan zituztela urteetan ezker abertzaleko sektore batzuekin Iparraldeko informazioa jorratzeko moduagatik.

Prozesua bere egin eta ARGIAren inguruan egitura enpresarial bat eraikitzea izan da filosofia. “Gure jardura nagusiak ukitzen dituen lanak beste enpresa bihurtzeko, beren buruari eutsiko diotenak eta aldi berean, zentrala den horri babesa emango diotenak”, azaldu du Zubiriak.

“ARGIAren hasi ginenean, prozesuak 15 egun behar zituen aldizkaria amaitu eta etxeetara heldu bitartean”, oroitzen du Iñaki Uriak. “Fotokonposizioa kanpoan egin beharrean, etxean egiten hasi ginen. Horrekin azkartasuna irabazi genuen eta prozesua ezagutzen joan ginen”.

“*Egunkarian* serio pentsatzeko momentua nahiko azkar heldu zen, enpresak finkatuta egon gabe, pausoak ematen gindoazen, horietan ibiliko zen jendea gainean baikenuen”. Juanjo de Marcos *Poco* eta Simeon Barroso *Sime* teknikariak balentria handiak egin zituzten. *Eginen* ezagutu zituzten eta ARGIAren sistema informatikoa jartzeko erronka beren gain hartu zuten. Makinak konpontzen benetan trebeak ziren, eta ARGIAko belaunaldi berriek askotan entzuten dituzten anekdotak dira *Sime* eta *Poco* ordenagailuen erretako txipak usaimenez eta hauek miazkatuz aurkitzen zituztenekoak.

Madrilgo egunkari handi batean baztertutik zeuden fotokonposaketarako bi



Lehen argazkian, 1980ko hamarkada hasieran ARGIAko kideak Egian: Ostaizka Irastorza, Joxemi Zumalabe, Pello Zubiria, Jon Barandiaran, Joseba Alvarez, Iñaki Uria eta Josu Landa. Erdikoan ARGIAren erredakzioa Donostiako Egia auzoan, Virgen del Carmen kalean. Behekoan, besteren artean, Joxemi Zumalabe, Iñaki Uria, Inaki Irazabalbeitia eta Joxe Azurmendi euskal prentsaren eguna iragartzen, 1988an.

makina erosi eta jokaldi borobila egin zuten. Bietako bat garestiago saldu eta bestea debalde ARGIArako. “Ordurako fotokonposizio potente xamarra genuen, harpidetzen gestioa ere oso ongi informatizatuta, Josu Landak eskuz sartu baitzituen milaka harpidedunen datuak”, oroitzen du Ostolazak.

Halako operazio gehiagoren eta lan askoren ondoren, urte gutxitan, kiebran zegoen aldizkaria berrindartu zuten eta inguruan enpresak sortu zituzten: Apika informatikan eta Antza diseinu grafikoan.

Beren bizimoduak ateratzeko, batzuk irakasle edo itzultzaile gisa lan egiten zuten, bestetzuk *Eginen* kolaboratzen zuten. Teknikoki hedabide handiak baino aurreratuago zeudela ikusten hasi ziren, disketeekin lan egiten hasi zirenean kasu. “Gu askoz pobreagoak ginen, haiek baino askoz gutxiago kobratzen genuen, txabola batekoak ginen ia egoitzak konparatuta; baina oso aurreratuta geunden teknikoki. Horrek kriston bentaja ematen du”, dio Zubiriak.

“Egunkari bat egiteko behar zen guztia genuen, eta horrek ekarri gintuen, 1988-89an egitea posible zela ondorioztatzen. Eta horren ostean, ‘egin egingo dugu’ erabakitzen”, dio Uriak.

“Josu Landarena benetan nabarmen-tzekoa da, denbora gutxian ikasi zuen hedabide baten prozesua osorik egiten: elkarriketa egin, grabatu, argazkiak atera, berak errebelatu, fotokonposizioa egin behar bazen egin, eta baita inprentan botatzen ere”. Ostolaza ziur da *Egunkaria* ezinezkoa zela Landa gabe. “Josu ez zen klabea bakarrik izan, ezin bestekoa baizik”.

“ARGIA nahi nintzen Antza sortu baino urtebete lehenago, astean bi egunetan joaten nintzen testuak pikatzen laguntzera”. Orduan 26 urte zituen Maite Gil hunkitu egiten da gaiak hizketan hasi eta berehala. Euskaraz ikasten ari zen eta giro erabat euskaldunarekin topo egitea, hitz egiten hasteko leku bikaina zen. “Oso ongi sentitu nintzen bertan, denok bat ginen, egin behar zena egiten zen eta ikaragarritzko giroa zegoen. Egin zidaten harrera ez dut sekula ahaztuko”.

Egunkaria egin zitekeen

Langileak kobratzen hasi ziren, gizarte-segurantzak kotizatzen, zor informalak kreditu formal bilakatu zituzten. ARGIAk inguruan 40 bat lagun zituen,

Antza eta Apika ere kontatuta. Argia Egunak egiten hasi ziren jendearengana heldu asmoz. 60 eta 100 herri bitartean, egun berean ARGIA sustatzeko mahaiak jartzen ziren, 1987an 300etik gora jartzera iritsiz, euskalgintzako herri mugimendu hainbaten laguntzarekin: AEK, EHE, herrietako elkarte eta talde euskaltzaleak... 1988an euskarazko egunkari baten beharra plazaratzeko baliatu zuten Argia Eguna.

“Inguruko errekturso guztiak erabiltzeko gaitasun hori zen ARGIA indartsu egiten zuena eta hori da historiari kanpo geratzen dena beti”, dio Zubiriak.

Xabier Letona unibertsitatean kazetaritza euskaraz ikasi zuten lehen belarrietakoak da. ARGIA n kolaboratzen hasi zen Laura Mintegi, Pello Urzelai, Antton Azkargorta, Imanol Murua, Luistxo Fernandez, Jon Sarasua, Jesus Artetxe eta besterekin. “Gu ez ginen gehiegi enteratzen, Bilbon bizi ginen ikasle”. Garai hartan euskalgintzan enfrentamendu handia zela gogoratzen du. Ikastolen publikazioaren aurreko garaia dira, autonomiaen hasierako urteak. “Batetik mundu instituzionala zegoen, EAJk indar handia zuena; eta bestetik euskararen herri mugimenduak zeuden, non ezker abertzaleak zuen indarra. Jaurlaritza eta Euskal Kulturaren Batzarra (EKB) zeuden aurrez aurre”.

1980ko hamarkada osoan zehar errepikatzen zen euskara hutsezko egunkariaren aldarrikapena. Joxemi Zumalabek 1986an proiektu bat idatzi ere egin zuen Jaurlaritzaren deialdi baterako, baina atzera bota zuten *Egin* eta *Deiari* euskarazko gehigarri bat jartzeko diru laguntza ematea erabakiz. “Diru laguntzak amaitu zirenean desagertu ziren gehigarriok, guk hor jarraitzen genuen gurean”, oroitzen du Ostolaza. Artikulu, hitzaldi eta mahai-inguruak asko izan ziren, eta horietan eragile zen ARGIA.

Iñaki Uriak gogoratzen du *Egunkaria* egingo zutela erabakitzea prozesu bat izan zela. “Hamarkada amaierarako ikusi genuen eskean ari ginela baina alperrik zela, aitzakiak jartzen zituztela: ez dagoela irakurlerik, guk badakigunean badaudela; kazetaririk ez dagoela guk badakigunean ongi prestatutako gazteak ateratzen ari direla unibertsitate-tik, eta abar luze bat”. Urte haietan euskarazko egunkariaren aldeko diskurtso argumentatua sozializatzen aritu ziren han eta hemen.

» **PELLO ZUBIRIA:**

“1980ko hamarkadan metatu genuen ezagutza eta azpiegitura guztia Egunkaria aurrera ateratzeko jarri genuen”

» **JOXE MARI OSTOLAZA:**

“ARGIA n inork ez zuen bere burua proiektuaren aurretik jarri, koadrila sendoa zen eta talentu pixka bat ere bagenuen”

» **IÑAKI URIA:**

“Egunkaria eskatzen aritzea alferrik zela ikusi genuen, aitzakiak jartzen zituztela, eta guk geuk egitea erabaki genuen”

Egunkaria Sortzen aldarria

“ARGIA n ezin genuen bakarrik egin, lagunduko genuen muntatzen, baina hor beste koalizio bat behar zen”, dio Zubiriak. Proiektua ARGIAtik zetorren, baina aurrera ateratzeko bere bidea egin behar zuen. Hori izan zen *Egunkaria Sortzen*-en filosofia eta administrazio kontseiluan hala islatu zen.

Diru bilketa erraldoia egin zuten. 50.000 pezetako akzioak saldu zituzten puskaka. 500.000ko akzioak ere saltzen ziren, euskal munduarekin sentsibiltate berezia zuten enpresariak bilatu eta haiengana joanez. Mugimendu handia izan zen herri guztietan. Jendearen erantzunaz galdetuta, Pellok honela borobiltzen du: “Askok lagundu zuten, batzuek beti laguntzen dutelako; beste batzuk ez dute sekula laguntzen”.



Jaurlaritzaren beste egunkaria

“Ez zen ideia bat, egin behar genuen zer-bait baizik”, dio Ostolazak. “Problemak izan ziren Jose Ramon Beloki eta Joseba Arregi buru, Jaurlaritza gu saboteatzen hasi zenean. Jaurlaritzan konturatu ziren serio ari ginela eta *Egunkaria* egin egingo genuela, eta orduan, beste bat jarri ziguten parean. Diru publikoa zuten, bezerorik ez zuten behar, ikastolei debalde banatu nahi baitzieten eta horrela abortatu gure proiektua. Proiektua ez zen euskararentzat lortzea erdarek zituzten egiturak, batzuek negozio bat zuten buruan”. Ostolazak bereziki modu mingarrian oroitzen du, Ikastolen Federazioa Jaurlaritzaren proiektura joan zela beste batzuekin batera, eta aktiboki *Egunkaria Sortzen*-en aurka egin zuela. “Beste batzuk ere bai; izan ere, bakardadea beti izan dugu lagun, determinazioa ere bai”.

“[Joseba] Arregik kontrolatzen ez duen ezer ez du onartzen”, idatzi zuen amaitu gabe utzitako artikuluan Joxemi Zumalabek, Lorea Agirrek argitara eman zuenez. Iñaki Uriak honela gogoratzen du: “Gizartean zabaldu zuten egunkari publikoa egingo zutela, eta zenbait sektore dirua jartzeko orduan atzera eginarazi zuen horrek, batez ere, diru gehien izan zezaketenak. Hortik kalte handia egin ziguten”.

Uriak prentsaurreko bat du gogoan, egoeraren adierazle, *Egunkaria* jaio bezperetan Jaurlaritzak bere berripapera iragartzeko egin zuena. “Ni joan nintzen, eta ezin nuen sinetsi. Esaten zuten *Egunkaria*arena propaganda kontua zela, ez genuela egingo. Eta guk bi egunera edo ateratu behar genuen”.

Urte eroak

“*Egunkaria* sortu aurreko eta ondorengo urteak oso gogorrak izan ziren, lan handikoak”. 1989 bukaeran hasi ziren bilerak egiten EKBtik deituak, eta ondorengo urtebetean ondorengoak egin zituzten Uriak oroitzen duenez: Durangon bilerak, 1990eko urtarrilean *Egunkaria Sortzen*-en lehen bilerak, talde eragilea, ekonomi taldea eta kazetari-tza taldea sortu proiektua diseinatzeko; udaberrian proiektua onartu eta enpresa sortu, kanpaina antolatu maiatzaren 15etik uztailaren 15era, amaieran Belodromoan 0 zenbakiarekin festa antolatuz; kazetari jendea prestatzeko ikastaroak antolatu Mundaizeko ARGIAko

egoitzan, paraleloan Lasarteko egoitza bilatu eta atondu... eta bitartean astero ARGIA aurrera atera. “Imajinatu ze eromena”.

“Euskara zen ardatza, naziogintzan ari ginen ezkerreko ikuspegi eta praktika batekin. Hori zen motorra”, irizten du Ostolazak. “Tamalez ez da hitz egiten enpresa munduan ezkerreko praktikak egiteaz, helburuez eta beste hitz egiten da. Baina helburuek medioetan egon behar dute. Esan ez, egin”, uste du Zubiriak.

Egunkariak euskalgintzaren eta herri-gintzaren esparruan ekarpen ugari egin zituen. Horietan nabarmentzen da Estilo Liburuan finkatu, eta egunero praktikan jarri zuten lurraldetasun ikuspegia, edo leku izenak eta beste euskaraz nola idatzi behar ziren zehazteko egindako lana.

ARGIAk eutsiko al zion?

“ARGIAko talde horrek daukan guztia jartzen du *Egunkaria* ateratzera, garrantiatzat dauden gure etxeak barne”, dio Ostolazak. “Gure ezagupide guztia sartu zen hor, gure bezero zerrendak eta genekien guzti-guztia akzionisten bila joateko”, Pello Zubiriak. Eta hala, abenduaren 6an *Egunkaria* ateratu zen, azalean Durangoko Azoka eta Kuwaiteko gudaren lehen iragarpenak jasoz.

Oso ahul geratu zen ARGIA, berriz ere. “Zorarena izan zen, ilusio itzela. Ikusten zen egunkari bat euskaraz izatea izugarria zela”, dio orduan 24 urte zituen Xabier Letonak. “Denboraren perspektibarekin ikusten dut ez ginela ohar-tzen zer zetorkigun gainera astekarian jarraituko genuenoi. Ia langile guztiak *Egunkaria*ra pasa ziren egun batetik bestera, eta oso posizio ahulean geratu ginen. Gaztetxoak ginen, kide gutxi... enpresari aurre egin eta periodistikoki geure lekua berriz ere bilatu beharra”. Garbine Ubeda zuzendari, Juan Jose Petrikorena, Iñigo Makazaga, Xabier Letona eta Pablo Sastre geratu ziren, besteren artean.

Desafioari hozkada

“Badaukak proiektua ala ez daukak? Proiektua hi-heu bahaiz ni ez mareatu”, haserretzen da Ostolaza atzera begira jarrita. “ARGIA, inork ez du inoiz bere burua jarri ezeren aurretik. Koadrila oso sendoa osatu genuen. Eta talentu pixka bat ere bagenuen, indarraz gain.

Horrek jarraitzen du, ez baita kasualitatea ARGIA zuen oraindik jarraitzea eta talde hartatik sortu zen Susa argitaleak adibidez, oraindik ere hor egotea funtzioa betetzen. Eta guzti hori euro ziztrin bat gabe egin genuen”.

Antzako diseinatzaile Maite Gilek honela laburbiltzen du *Egunkariaren* sorrera: “Jendeak lan handia egin zuen; hori bai, ARGIAko espirituarekin ateratzen aurrera hori. Hor zegoen ARGIA eta hori ez da ahaztu behar, orain euskarazko egunkari bat dugula besterik gabe esatea erraza baita, baina nor mugitu zen hori aurrera ateratzeko? Josu, Pello, Iñaki, Ostolaza, Zumalabe eta beste. Kriston taldea zen eta bere garaian dena eman zutelako egin zen *Egunkaria*”.

“Sasoiko jendea dago, eta desafioari gustuz egiten zaio hortzakada”. Pello Zubiriak ARGIA, *Egunkaria* sortu eta hurrengo astean egindako elkarrizketan zioen hori. Lehen zuzendari izendatu zuten, nahiz eta berak askotan nabarmendu berak ez zuela zuzendari izan behar hasiera batean, ez zela agente printzipala izan, askoren artean bat baizik.

Hilabete zailak bizitzea tokatu zitzaizkion *Euskaldunon Egunkariari*. Besteren artean, diru-laguntzak ezin lortuan ibili ziren, euskararen normalizazioan egiten zuten lana erakundeetatik aintzat hartua izan gabe. Beste erreportaje bat merezi lukete Jaurlaritzarekin harreman normalizatua izan eta diru laguntzak lortu arte bizitako urteek. Anekdotan moduan oroitzen du Zubiriak, zein gogor hartu zuen Jose Antonio Ardanza lehendakariak Martin Ugalde, hau joan zitzaionean Ajuria-Eneara *Egunkaria* sortu berria aurkeztera.

Epilogo trastea

Euskal Herri osoan ibilbide emankorra egin ostean, *Euskaldunon Egunkaria* 2003. urtean Espainiako Auzitegi Nazionalen Juan del Olmo epaileak itxirazi zuen. Atxilotu ugari torturatu egin zituzten. 2010eko epaiak erakutsi zuen itxierak eta atxilotetek inolako oinarririk ez zutela.

“Batziek publikoki esan izan dugu ez dugula onartzen itxita egotea. Eraikitzen hainbeste kostatakoa ixten dute, errurik txikiarik gabe ateratzen dira gero, eta *Egunkaria* itxita geratzen da? Oso gogorra da hori, ez da onargarria”.

“Lezio inportanteena litzateke ezinezkoa zirudiena egin egin zela. Hauek po-



Lan handiaren ostean, euskarak lortu zuen egunkari bat. Hau ARGIAren azala aste horretan.

sible zela ikusten zuten eta mentalki oso aurreratuta zihozten”, laburbiltzen du Xabier Letonak. “Aldarrikatzetik egitera igaro ginen”, hori da Iñaki Uriaren ustez gakoak.

“Egin eta *Egunkaria* itxi zizkiguten, baina hemen ez da ezer gertatzen. Hori bai, dabilenari bai pasatzen zaio: baina proiektuan hainbeste lan eta arrisku hartu duenak zer egin? Nola konpondu

hori? Hala ere, gustura egin genuen egin beharrekoa. Eta damurik ez”, amaitu du Ostolazak. Egun, ARGIAk jarraitzen duela ikusita, Ostolaza erredakziora bisitan etortzen denean ozen “¡Qué hermosura!” esaka sartzen da beti. ■

» **Argia.eus** webgunean erreportajearen bertsio luzeagoa

BIZILAGUNAK EZAGUTZEA LEHEN URRATSA

Euskal Herrian 428 familiak hartu dute parte Bizilagunak egitasmoan. Alboan bizi arren sarri ezezagunak diren herritarren arteko harremanak sustatzeko, bazkariak antolatu dituzte eta bertan jaiok eta beste herrialde batean jaiokak bildu dira mahaiaren bueltan.



Irati Sarasua Arabaolaza
@iratisarasua

Etxearen goxoa. Horixe izan da Bizilagunak egitasmoak hautatu duen lekua. Herri ugaritako etxeek goxatu dituzte elkarren berririk izan ez eta elkarren ondoan bizi diren lagunak hitz jarioak. Jatordua aitzakia, bertan jaiotakoak eta Euskal Herrira migratu dutenak elkartu dira etxeetan. Guztira, 30 nazionalitate-tako 2.200 lagun elkartu dira 34 herritan, 214 etxetan. Gu Hernanira hurbildu gara: 50 etxe izan dira solasaldien lekuak, eta horietako lautan izan gara.

Astu senegaldarra, bazkariko dinamizatzaile Keparekin batera, eskailerak gora abiatu da Ixiarren etxera, urduri. Xiarrek atea zabaldu bezain pronto irribarre egin die, iristen lehenak izan dira, baina guztia prest du hernaniarrak. Bost minutura berriro ere etxeko txirrina jo dute, familiako beste hainbat kide iritsi dira, guztiak Astu ezagutzeko gogoz. Elkarri bi musu eman eta mahaiaren jesarri dira. Frantsesez dakitenek euren abildade linguistikoa erakutsi nahi izan dizkiote gonbidatuari, eta etxean bezala sentiarazi dute. 23 urte ditu eta lau hilabete daramatza Euskal Herrian, Senegaldik bakarrik etorri den galdetu diote, eta baietz erantzun du. Lotsatuta dago, baina inguruko gertutasunak lasaitu egiten duela dirudi. Janariari buruz ari-tu dira hizketan, eta pixkanaka azalpenak ematen hasi da bera. Egitasmoaren helburua betetzen ari dela dirudi, pixkanaka elkarren esperientziez eta bizitzaz informazioa partekatzen ari baitira.

Antzeko zerbait gertatu da Kororen etxean ere. Iritsi orduko guztiak alga-

raka daudela ikusi dugu. Kasu honetan bi familia elkartu dira, Saharako bata eta Hernaniko "familia berezia" bestea: Fatu eta Cheij gurasoak Guha eta Matu alabekin batetik, eta Koro, Xabi eta Ixa lankideak bestetik. Alaba helduenak, Matuk, bizkotxo egin du bazkarirako, eta bissam izeneko edaria ere eraman dute egun berezia ospatzeko. Bi urte daramatzate Hernanin bizitzen, eta bost inguru Euskal Herrian. Bazkarian guztiak gustura daudela dirudi; gaur ezagutu dute elkar, herrian gurutzatu izan badira ere, egitasmoak eman die lehen hitzak gurutzatzeko parada. Alabek euskaraz hitz egiten dute, zaharrenak lau hizkuntza dakizki eta medikua izan nahi du, hori kontatu die lagun berriei. Ez da Saharako familiak Bizilagunak programan parte hartzen duen lehen aldia, aurrekoan bezain gustura sentitzen direla azaldu digute: "Sortzez euskaldunen eta etorkinen arteko elkarbizitza indartzen laguntzen du saio honek, eta hori guretzako handia da. Bertako ohiturak eta, batez ere, bertako jendea ezagutzea errazten digu, eta hori izugarria da". Alabak ere gustura daude, gainera opariak eraman-go dituzte etxera. Ixaren alaba ere izan da bazkariaren hasieran, eta gaztetxoaren artean harreman polita sortu dela kontatu digute: "Haurrak dira askotan gakoak, eurak erakusten digute guztiak berdina garelako, eta aurreiritziek ez dutela deus balio, aurreiritzi horiek hautsi behar direla ikusarazten digute". Aneren hitzak dira. Bazkariko dinamizatzailea da, eta kontatu digu herri berean bizi diren

pertsonen arteko harremana normalizatzea dela ekimenaren helburua: "Guztiak dira, kasu honetan, hernaniarrak, eta euren artean ezagutzeko aukera ederrena etxeko ateak zabaltzea da".

Aniztasuna, altxor baliotsuena

Bazkari guztietan dinamizatzaile bat egoten da laguntza eskaintzeko. Baina Anek nabarmendu du lan erraza dela, euren beharrik ez dutela izaten gehienetan, bi aldeek dakitelako nora eta zertara doazen, eta biek prestutasuna erakusten dutelako lehen unetik: "Aniztasuna da egun hauen adierazgarri nagusia, kultura edo ohitura ezberdinak dituen jendea elkartzeaz gain, familia mota ezberdinak elkartzen baititugu; lagunak, lankideak edota senitartekoak izan daitezke bizilagunak ezagutzera bazkari hauetara joaten direnak". Kasu honetan, lankideak dira hernaniarrak, baina familia bat ere badirela diote: "Aniztasun horrek erakusten du benetan honen guztiaren asmoa".

Eliren etxean ere bestelako familia bat elkartu da: haren bizilaguna, gurasoak eta Hernanira migratu duen familia bat. Zertaz ari diren hizketan? Futbolaz. Bata Real Madrilen aldekoa dela, eta gero ezetz, txantxetan ari zela. Kataluniako taldeen aldekoa dela, zalantzarik gabe. Umoretsu ari dira. Gero kontatu digute grabagailua jartzean otu zaiela hizketarako gaia, ez omen zaiela futbola gehiegi gustatzen. Berehala hasi da txisteak kontatzeko tartea; hurrek aurrena, amak gero. Elik dio oso txa-



» **ANE, BIZILAGUNAK EKIMENEO DINAMIZATZAILEA:**
 “Haurrak dira askotan gakoa, eurak erakusten digute guztiak berdinak garela, eta aurreiritziak hautsi behar direla”

rra dela txistek kontatzen, ondorioz, gaurkoan barre egitea egokitu zaio. Baina beste zeregin bat ere izan du, mahaitik jaiki eta argazkiak ateratzeari ekin baitio; bazkari ahaztezina izan daiteke, harreman baten lehen aleak izan daitezke, eta flash artean gorde nahi du unea. Urte Zaharreko afaria jarraitu dute hizketan, denek argi utzi dute ospakizun handi guztietan bezala, gaurkoa kasu, janaria ezinbestekoa dela urte berria ospatzeko. Eta berriro ere algarak.

Neliren etxean giroa lasaiago dago, tarta zati bat dute guztiek esku artean, eta solasaldi atseginean daude murgil-



Goiko irudian: Eliren etxean, haren bizilaguna, gurasoak eta Hernanira migratu duen familia bat elkartu dira. Behekoan, Koro, Xabi eta Ixa lankideak, Saharatik etorritako Fatu, Cheij, Guha eta Matu, eta Ane dinamizatzailea.

duta. Kasu honetan, Jaioneren 11 urteko alaba dabil argazkilari. Mugikorrean dituen aplikazioak erakutsi dizkie mahai inguruan daudenei, eta argazkiak nola atera behar dituzten ere azaldu die. Edozein gai atera liteke halako bazkari batean. 11 urteko gazteak independen-

tziari buruz galdetu dio parean duen emakumeari: “Aizu, Neli, Portugal beti izan al da independente?”. Guztiak zur eta lur utzi ditu gaztetxoaren galderak.

Urteetako gatazkaren ondorioz, Euskal Herria itxita egon dela uste du Aitor Ruiz de Eginio eskultoreak. Hiru urte da-

ramatza parte hartzen, eta nabarmendu du, integrazioaz hainbeste hitz egiten den garaiotan, halako ekimenak beharrezkoak direla, kanpotik datozenei ateak zabaltzeko. Benetan errora jo eta laguntzen duten ekintzak hauek direla uste baitu.

Begiak zabaltzeko parada

Gazteek ere badute ekimenean jende berria ezagutzeko grina, eta bazkalostera gehienek herriko gaztetxean egin zuten hitzordua. Tinbal hotsak, giro onaren adierazle, urrutitik entzuten dira. Izarok parte hartzen duen hirugarren urtea da, eta bi daramatzate Haritz, Nora eta Mikelek. Izaroren hitzetan, "ikuspegia irekitzeko aukera" ematen dute halako egunek: "Beste egoera batean kokatzen duzu zeure burua. Beste modu batera ezagutuko ez zenukeen jendea ezagutzeko beta ematen dizute halakoek". Haritz eta Mikelek ederki pasatu dute bazkarian, eurak bezain bi-ziak diren bi lagunekin bazkaldu dutela azaldu dute; "halako giro ona sortzen duenak eta harremanak egitea errazten duenak ona izan behar du, ezinbestean". Rabik ere ederki pasa du. Lagun batek egin zion bazkari hauetan izen emateko proposamena, eta erakargarria iruditu zitzaion: "Lagunak egiteko aukera ona da; herri berri batean zaude, eta jendearekin harremanak egitea asko errazten digu, ezin duzue imajinatu zeinen garrantzitsua den guretzat". Etorkizunean herrian egingo diren ekimenetan parte hartzeko proposamena egin diete bizi-lagun berriei gaztetxean aritzen diren gazteek. Eta badirudi bazkari hauetan ereindako harreman hori hazten joango dela, Hernanin bezala, Euskal Herriko gainontzeko herrietan ere. ■



Ixiarren etxean (goiko argazkian), Astu senegaldarra izan dute gonbidatu; Nelirenean berriz (beheko irudian), Jaione, haren alaba eta lankideak izan dira.



Liburu azoka


Hondarribin, abenduaren 10etik 13ra Arrantzale auzoan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Bertako ekoizleekin konpromisoa



Hemengoak gara eta bertako
produktuen kontsumoa sustatzen dugu.



www.eroski.es



zurekin

Cikautxo, MU eta Fagor

EUSKARAREN LOBBYAK

Euskaragileak, euskaraz lan egin nahi duten enpresen batzordea, hasi da lanean. Lan mundua euskalduntzeko bidean eragile aktibo izatea da euren ildo nagusietako bat eta prest dute lehen egitasmoa: amankomunean dituzten hornitzaileei euskarazko zerbitzua eskaintzeko eskaera bateratua egingo dute. Cikautxo, Fagor eta Mondragon Unibertsitatea dira batzordeko kideetako hiru.



Saioa Labaka
@sailabaka

Euskaragileak batzordean ordezkari-tza duen enpresetako bat da Cikautxo; kautxuzko eta plastikozko osagaiak garatzen eta ekoizten dituen enpresa da, 500dik gora langile ditu. Automobilgintzako piezak egiten dituzte, nagusiki. Lea-Artibai eskualde euskaldunear dago enpresa, Berriatua, eta azken bost urteetan gogor aritu dira lanean etxe barrua euskalduntzen. Ramon Mendiguren enpresako proiektu arduradunarekin hitz egin dugu egiten ari diren lana ezagutzeko.

“Euskaragileak batzordeko enpresa gehienok euskara plan bat daukagu, nahiko aurreratua, eta urteak daramatzagu horretan lanean. *Lobby* lana egitea izango da gure zereginetako bat nola-bait esateko; euskaraz lan egitea posible dela ikusarazi nahi dugu. Bestalde, talde modura eragin zuzena hornitzaileengan izan genezakeela ikusi genuen; eta lan-



Fagor Taldeak 8.000 langile biltzen ditu. Beste enpresa batzuekin elkarlanean zer egin daitekeen ikusteko aukera ona iruditu zaie Euskaragileak egitasmoa.

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

keta horrekin hastea erabaki genuen. Amankomunean dauzkagun hornitzaileak identifikatzen ari gara”.

Euskaragileak hiru hiletik behin biltzen da Kontseiluarekin, eta datorren bilkuran egingo da behin betiko hornitzaileen aukeraketa. Horrez gain, eskaera bideratzeko prozesu guztia zehaztuko dute; hornitzaile bakoitzari zehatz-mehatz zer eskatuko zaion definituz. Ramon Mendiguren: “Euskaraz lan egiten dugu eta guretzat balio eran-

tsi bat da hori. Euskara erabiltzearen onuren berri emango diegu eta eurekin ere euskaraz egin nahi dugula adierazi”.

Cikautxo enpresaren hornitzaile garrantzitsuenak kanpotarrak dira; automobilgintzakoak. Baina ekoizten dituzten produktuez haratago, bestelako hornitzaile askorekin egin behar izaten dute lan: elektrizistekin, bidaia-agentziekin, auditoreekin... Zentzu horretan hasi ziren euren hornitzaileengan eragiten eta bakoitzarekin nola jokatu era-

bakitzen. Esaterako, segurtasun enpresako langile batek ez daki euskaraz eta langile hori oporretan dagoen bitartean, ordezkari langile euskalduna ekartzeko konpromisoa hartzeko eskatu zioten enpresari. “25 bat hornitzaileari eskutitza bidali genien eta horietatik 18k erantzun ziguten. Gehienak irtenbideren bat aurkitzeko prest azaldu ziren. Batzuek, eskatzen geniena betetzerik ez bazuten ere, beste eremu batean euskara erabiltzeko prestutasuna azaldu zuten”.

Argi du Ramon Mendigurenek euren ogibidea automobilgintzako piezak egitea dela, eta lan handia izan arren, hasitako bidea jarraitzeko prest daude: “Asko dago egiteko oraindik. Gutzika egin behar den lana da, baina gelditu barik. Ez da erraza, baina lortu daitezke hobekuntzak”.

Fagorrek hornitzaile asko etxekoak

Fagor Taldea Euskaragileak enpresa sareko kidea da eta Leire Okarantza da enpresako ordezkaria. Fagor Taldean zazpi kooperatiba daude eta 8.000tik gora langile. Euskaragileak egitasmoan zerk bultzatuta parte hartu duten gal-

detu diogu Okarantzari: “Momentu honetan, ikusten dugu gure normalizazio planetan dauzkagun helburu eta urtez urte finkatzen ditugun ekintzetarako ekarpen interesgarria izan daitekeela beste batzuekin modu bateratuan pausok ematea”.

Euskaragileak batzordean hornitzaileekin egingo duten lanketaz gain, aurrez antzeko ekimenik abian jarri ote duten jakin nahi izan dugu: “Gure estrategia barrura begira lan egitea izan da, eraginkortasuna lortu nahi izan dugu barruko erabilerari dagokionez, bai maila instituzionalean bai maila informalean. Ez gara jarri hainbeste kanpora begira eta hornitzaileetan eragiten, zuzenean ez behintzat. Orain ariketa hori gure egiten gabilta”.

Fagor Taldeko Euskara Batzordean Kontseiluaren bileretan adosten diren irizpideak aintzat hartzen dituzte eta beraiek nola bideratu pentsatzen ari dira. Bestalde, Mondragon Korporazio-ko kide direnez, bertako kooperatiba asko euren hornitzaile dira, eta alderantziz. Elkar eragiteko esparru interesgarria dela iruditzen zaie. Hornitzaileekin

» **RAMON MENDIGUREN, CIKAUTXO:**

“25 bat hornitzaileari eskutitza bidali genien eta horietatik 18k erantzun ziguten”

» **LEIRE OKARANTZA, FAGOR:**

“Gure estrategia barrura begira aritzea izan da, ez hainbeste hornitzaileekin”

lanean hasterakoan, bi alderdi hartu nahi dituzte kontuan. Alde batetik, Korporazio mailako kooperatibek euskara plana izatea eta, beste aldetik, talde barruko egoera aztertzea. Alegia, hornitzaile bat aukeratzeko garaian, identifikatu behar dute nork izango duen

LANAK AURKEZTEKO:
cafelhuyarsariak@elhuyar.com

INFORMAZIOA ETA OINARRIAK:
cafelhuyarsariak.elhuyar.eus

ANTOLATZAILEAK
CAF elhuyar

LAGUNTZAILEA

KULTURA ZIENTIFIKOAREN ALDE

CAF ELHUYAR SARIAK 2015

harremana hornitzailearekin eta langile hori euskaraz jarduteko gai izango dela ziurtatu beharko dute.

MUko Eskola Politeknikoa ari zen hornitzaileekin lanean

Xabier Sagarna Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Elektrotika eta Informatikako koordinatzailea da. Bera ari da parte hartzen Euskaragileak enpresa batzordean. Eskolaren jardura nagusiak dira prestakuntza, ikerketa, garapena eta berrikuntza. 2.000 ikasletik gora ditu eskolak eta 200dik gora langile.

Urteak dira euskara plana abian jarri zutenetik. Sagarnak esan digunez, Eskola Politeknikoaren lehentasuna izan da zerbitzuak euskaraz ematea; ikasleekin eta enpresekin dituzte harremanak. Ikasleei eskolak euskaraz ematen dizkiete, baita gainontzeko zerbitzuak ere: fotokopiak ateratzeko denda, kantina... Bestalde, ikerketa eta etengabeko prestakuntzako jarduerak euskaraz jaso nahi dituenak, bermatua dauka aukera hori ere. "Guk eskaintzen ditugun zerbitzu horietan hornitzailearen batek parte har-

13 EUSKARAGILEAK

Euskararen Kontseiluaren ekimenez sortutako Euskaragileak taldean 13 enpresa daude: Batz, Cikautxo, Eika, Ekin, Elay, Fagor, Goizper Group, IMH, Irizar, Matz-Erreka, Mondragon Unibertsitatea Eskola Politeknikoa, Mondragon Korporazioa eta Orkli.

» **XABIER SAGARNA, MU:**
"Kantinako langileek badakide euskaraz, baina eska diezaiekegu lehen hitza beti euskaraz egiteko"

tzen badu, euskarazko zerbitzua gehien-go handi batean bermatuta daukagula esango nuke. Aurrez landutako gaia da guretzat, irizpide batzuk ezarri zirelako

garaia batean. Dena den, beti dago zer hobetu. Euskaragileak batzordean egiten ari garen hornitzaileen lanketak baliok izan digu gure egoeraren diagnostiko zehatzagoa egiteko eta identifikatzeko non ditugun hobetzeko aukerak".

Hornitzaileekin dituzten harreman komertzialak hobetu ditzaketela ikusi dute: produktu/zerbitzuen eskaintzak euskaraz jasotzea, eskaerak euskaraz egitea, fakturak euskaraz jasotzea... Adibide gehiago ere eman dizkigu Sagarnak: "Kantinako langileek badakite euskaraz, baina eska diezaiekegu lehen hitza beti euskaraz egiteko. Hartara, euskararen aldeko normalizazioan lagunduko ligukete. Bestalde, unibertsitateko eraikin guztietan kafe makina asko ditugu; botoiak euskaraz daude baina *display* elektronikoa ez. Hori euskaraz jar daiteke? Horretarako beste enpresa batzuen babesa behar genuke. Iraganean egin genuen eskaera eta horrek kostu handia zeukala erantzun ziguten. Orain, agian, egin dezakegu saiakera Euskaragileak batzordetik, hiruzpalau enpresa euren bezero garelako. Ea denon artean lortzen dugun". ■

ESKERRIK ASKO
EUSKARAREN TAUPADA IZATEAGATIK

ABENDUAK 3
2015EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

EUSKALDUN BERRIARI AITORPENA
www.EuskaldunBerriaKalea.eus

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

BFA DFB

Bilbao

Donostia Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

eitb

JEKIN LANIKIDETZAN

Hitz eginez!

BI ALDIZ ERRENTAGARRIA DEN FINANTZA ERAKUNDEA



Lander Arretxea Bereziartua
@larretxea



Bazkideek sartzen duten diruarekin Hego hemisferioan pobrezia aurre egiteko bokazioa duten proiektuak maileguz laguntzen dituen sozietate kooperatiboa da Oikocredit.



OIKOCREDIT EUSKADI

- **Bazkideak:** 220 Euskal Herrian.
- **Jarduera:** Finantza etikoak.
- **Euskal Herrian egoitza:** Bilbo.
- **Noiztik martxan:** 2004.
- **Bazkide inbertitzaileak:** 53.000 mundu osoan.
- **Laguntza jasotzen duten erakundeak:** 799.

Aspaldi da han eta hemen finantza erakunde erraldoien kontrako iritziak entzun eta errepikatzen ditugula. Direla hipotekatako iruzurrak, direla preferenteak, ustelkeria kasuak... Baina hala ere, herritarron gehiengoak bertan gordezten ditugu gure sosak eta aurrezkiak, kasu askotan, zertarako erabiltzen diren jakiteko aukerarik gabe. Badira alternatibak ordea: finantza etikoak esaten zaion lan-esparruan dabiltzan erakundeak. Haietako bat da Oikocredit, bazkideek sartzen duten diruarekin Hego hemisferioan herrialdeetan pobrezia aurre egiteko bokazioa duten proiektuak maileguz laguntzen dituen sozietate kooperatiboa. Nazioarteko organismo zentratean erabakitzen dira maileguen eta inbertsioen gorabeherak, baina mundu osoan ditu jardun hori ahalbidetzen duten 30 elkarte, 13 herrialdeetan. Tartearen, Euskal Herrian ere bai: Oikocredit Euskadi.

Gardentasuna, errentagarria izateari utzi gabe

Bertako bazkide izateko, gutxienez 200 euroko inbertsioa egin beharra dago, kooperatibaren kapitalaren erosketaren bidez; eta horrek Oikocredit Euskadiren erabaki guztietan parte-hartzeko aukera ematen dio ekarpena egiten duenari. Sozialki sortzen duen onuraz gain, ekonomikoki ere errentagarria da gainera: urteko asanbladan erabakitako ehuneko -2% izan ohi da gehitzen baitzaio urtero norberaren inbertsioari. Urtea-

ren amaieran diru hori berreskuratu edo bertan mantendu nahi den erabakitzeko aukera du bazkideak.

Gardentasuna ere bada Oikocrediten bereizgarria, bai behintzat ohiko finantza erakundeekin alderatuz gero. Izan ere, Euskal Herriko taldearen zuzendaria den Jorge Berezoren arabera, bazkideek modu asko dituzte beren diruarekin laguntzen diren proiektuen berri izateko. Biderik errazena webgunean duten datu-basea kontsultatzea da, baina badira gertukoak ere: "Urtean behin gutxienez antolatzen dira lagundu ditugun proiektuak bertatik bertara ezagutzeko bidaia, eta modu berean, haietako batzuetan lanean ari direnek egiten digute bisita".

Krisiak ez du beherakadarik ekarri

Krisi ekonomikoak ez dio beherakadarik ekarri Oikocrediten jardunari. Hala dio Jorge Berezok: "Urte hauetan nabaritu da jende askok inbertitzeko diru gutxiago izan duela, baina aldi berean, krisiarekin jakinmin handia piztu da finantza etikoaren inguruan".

Bestelako finantza ereduena ez da bakarka egiten den bidea. Horregatik, Euskal Herrian bertan lan bertsuetan ari diren beste erakundeekin harreman sendoa dute. Fiare, Koop57 eta CAESekin batera, Finantza Alternatiboko Sistemaren Mahaia osatzen dute REAS barruan, eta horrez gain, Fiareko bazkide ere badira. Denak ari dira finantzak beste modu batera kudeatu daitezkeela erakusten duen bidea urratzen. ■

Azpi-harmonia



Jakoba Errekondo

Trinitate eguna da gaur. Eguzkia Aries konstelazioaren parean sartu zenean udaberriari ekin genion; udaberrian sartuta, lehen ilargi betea izan zuen astea igaro genuen –batzuek aste santua deitzen dioten hori–, eta igande horretako ospakizunak ere bete genituen. Bai, aberri eguna, bai; ilargiak esaten digu noiz den aberri eguna, udaberriko lehen ilargi betea duen asteko igandea. Igande horretatik abiatu eta zazpi eguneko zazpi aste igaro behar ditu katolikoak maiatzeko pazkora iristeko; batzuetan maiatzean eta beste batzuetan ekainean izaten den mendekostera. Erlijioak ere ilargiaren musikan dantzatzen baitu... Pasa zen zazpigarren igande hori, eta gaur da trinitate eguna, zortzigarren igandea.

Egun handia da zenbait tokitan, Mendaron, adibidez. Bertan trinitate eliza dute, zaharra oso, eta garai batean bezala ikaragarritzko ospea du. Berak bezala bertako ospakizunek: herri kirol, erromeria... Urrutitik etortzen da jendea. Badaezpada denboraz abiatuko ziren etxetik, elizara sartu aurretik zeregin asko izango dute eta. Elizbideetan barrena, abarkak lokaztuta iritsiko dira, eta ezin, bada, mezetara kuxidade horretan sartu. Patrikan edo fardelean ekarritako apreta txukunak jantzi, eta meza aurre-



Mihilua (*Foeniculum vulgare*).

WOUTER HAGENS-CC BY SA

tik, gorputza eta gogoa berotzeko pare bat anis hartu.

Elizan ere zorua lurra bera izan, ordea. Atetik aldarerainoko karrajua kenduta, jendeak zutik edo belauniko behar duen tokia, lur gorria. Horri erantsi ordubete edo gehiago bidean gora eta behera ibilita etorri denaren izerdi usaina. Eta anisaren lurrunetan... Ospakizunari harmonia pixka batekin ekiteko, lurra den zoruan mihilua zabaltzen da, erruz. Azpiak egiten diz-

kiote jende aziendari. Mihiluak usain handia du, eta udaberriaren gorenko sasoi honetan puri-purian da. Jendea sartu ahala, zanpatu eta hedatzen den usaina ederra da. Gustatu egin behar! Gorbitalarria pizten dionik ere bada tartean...

Azpi-harmonia sortzen duen mihilua, *Foeniculum vulgare*, eta goi-harmonia dakarren anisa egiteko gaia den *Pimpinella anisum*, anis-belarra, famili berekoak dira, Apiaceaetarrek. ■

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago,
handitzen, berritzen eta gizarte
eta ingurumenarekin
konprometituta.

www.goizper.com Tel. 943 786 000



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)

EGUBERRITARAKO OPARIA

LIBURUA ETA ILARGIAREN EGUTEGIA

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

Durangoko Azokan eta ARGIA n lurreko lanabesak eskuratu ditzakezu: *Bizi Baratzea* liburua eta 2016ko Ilargiaren Egutegia. Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean atera dugu egutegia Pello Zabalak aukeratutako esaerekin. Hilero lan nagusiak, ilargiaren kokapena eta egutegi biodynamikoaren arabera eguneroko joerak azaltzen ditu.



AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Abenduaren 4tik 8ra

Durangoko Azoka

Bizi Baratzeak saltokia izango du. Lehenbiziko egunean liburuaren aurkezpena egingo da, eta egunero kontsultategia eta liburuak sinatzeko aukera egongo da Jakoba Errekondorekin.

Abenduak 10

Hondarribia

Lekua zehazteke, 19:00ean.

Abenduak 16

Altzo

Udaletxeko aretoan, 19:30ean.

Abenduak 22

Belauntza

Lekua zehazteke, 18:30ean.



KOMIKILARIAK ERREKONDOREN KONTSULTAN

Basotik edan izan dugu euskaldunok, herrigalea asetzeko behar izan duguna. Edan eta jan. Basoa izan da gure zibilizazioaren oinarria. Espiritualtasuna baino oinarritzakoagoa, eta erlijioaren aldean beharrezkoa. Gure iruditerian, gure kulturen zeresan ikaragarria du basoak.

Basoak ere bai, munta, itzal eta ospe handia du. Biziko bagara egunero edan behar; hau da, edalontziak salbatzen gaitu. Eta edalontzia aukeratzerakoan txoratzen ere ez ote garen ari... Gauza bat da edan behar eta eroso izatea eta bestea guztiz fina, mokofina, ahozuria, mokozuria, ahofina, aise-

nahia, limurkorra, litxarreroa eta atsegalea. Maiz edalontziari gehiago begiratzen diogu barruan darmanari baino. Garai batean sagardoa edateko botilari lepotik heldu eta basoaren ahoan bertan nola zerbitzatzen zuten gogoan dut. Asturien azkeneko izan naizenean jatetxe dotore asko batean aiton apain batek sagardoa botilaren muturretik nola edaten zuen ikasi nuen, elegante asko. Gero buuruaren gainetik zerbitzatu behar omen da... Burua eta basoa bakoitzaren bere tokian!

Jakoba Errekondo

VERSAILLESKO LARANJONDO NAFARRA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Erriberri (Nafarroa), XV. mendearen hasiera. Nafarroako Karlos III.aren emazte eta Gaztelako Henrike II.aren alaba Leonor Trastamarak *Citrus Bigaradia* aldaerako bost laranjondo hazi erein zituen. Zergatik? Bertsio soilenak dio Karlos III.ak urte batzuk lehenago Mediterraneoko kostaldetik ekarrazitako laranjondoetako baten fruitu garratz eta mingotsaren zaporea aparta iruditu zitzaiola eta, horregatik, besterik gabe, haziak loreontzi batean jarri zituela.

Dramazaleentzako bertsioaren arabera, senar-emazteak ez omen ziren batere ondo konpontzen, eta Nafarroako erregearen bost sasiko seme-alabak bereak bailiran zaintzen zituen arren, arratsalde batez lehertu egin zen.

Erregina hiru alabekin eta bost sasikoekin askaltzen ari zen, laranjaren zaporeak barruan gordeta zeukan garratasuna gogora ekarri zionean. Zortzi hurrei joateko eskatu zien eta, bakarrik geratu zenean, bost malko, sasiko bakoitzeko bana, erori zitzaizkion masailetan behera, laranjaren haziak zituen urrezko platerera. Senarrak gazteluko lorategiak zaintzeko Valentziatik ekarritako Matheu En Serra maisuari eman zizkion, batera erein zitzaizkion. Karlosi ez omen zion sekula utzi bere saminean ernetako landarearen fruituak dastatzen.



Versaillesko l'Orangerie lorategia laranjondoak josita dago gaur egun. Baina bildumako ale ezagunena falta du, Leonor Trastamarak duela 600 urte inguru Erriberri landatu zuen laranjondo boskoitza, itxuraz, Frantziara iritsi zen lehena.

Leonor 1416an hil zen Iruñean, eta laranjondoa Erriberritik gorte berrira eraman zuten. Hantxe egon zen 1499ra arte. Katalina I.a erreginak Britainiako Ana lehengusinari eman zion ezkontza-opari. Ana Frantziako Luis XII.aren ezkondu zenez, zuhaitza Frantziara eraman zuten. Diotenez, erresuman sartu zen lehen laranjondoa izan zen. Eta Frantziako Kondestable Nagusi Karlos Borboikoaren jauregian ipini zuten. Karlosi ondasun guztiak, zuhaitza barne, bahitu zizkiontenean, hauxe zioen konfiskazio aktak: "Bost adarreko laranjondoa, Iruñetik ekarritakoa. Bost adarrak denboraz bat egin duten jatorrizko bost zuhaitzetatik hazten dira". Handik

aurrera, *Le Grand Bourbon* izen zentzugabea erabiltzen hasi ziren espezimen bikainarentzat.

1532an Frantzisko I.ak Fontainebleauko jauregiara eraman zuen. 1687an, Versailles jauregia eraikitzen hasi ziren, Luis XIV.aren aginduz. Eta Jules Hardouin-Mansart arkitekto ezagunak l'Orangerie lorategia diseinatu zuen laranjondoa bertan jartzeko. Mende bat geroago, 1793ko urtarrilean, Luis XIV.ari lepoa moztu zioten. Zuhaitzak Frantziako monarkiak baino urtebete gehiago iraun zuen. 1794ko negu latzean hil zen laranjondo nafarra, hamasei metroko adaburua eta ia 400 urte zituela. ■

VERDINI METODOA

Abenduak 4
ostirala 21:30

bastero
KULTURA GUNEAK

basterokulturgunea.blogspot.com.es | ☎ 943 303 540

Gure Kide
Albaritza klinika

Murueta Auzoa, 1
48220 MATIENA (Abadiño)
Tel.: 94 620 16 21
Larrialdiak: 655 88 14 22
www.gurekide.es · cvgurekide@gmail.com

Medikuntza - Análisi klinikoa - Ekografia - Erradiologia
Kirurgia - Ospitalizazioa - Ile-apainketa - Osagarriak

Arzia Eritein

Getxoko Euskara Saria 2015

2015eko saridunak:
Josu Esnaola eta Alfredo Lopez de Gereñu
Orain 19 urte, Getxon Berbalaguna egitasmoa
martxan jarri zuten
Sariaren banaketa-ekitaldia: abenduak 1, 20:00, Fadura



DURANGOKO AZOKAN

Erein kazetaritza independentea



Itsaso Zubiria Etcheberria
@itsasozubiria

Zita garrantzitsua bilakatu da azoka azken urteetan gure euskal mikro mundu honetan. Bezero bezala ia nahitaezkoa dirudi egunen batean Durangora gerturatzeak, eta zer esanik ez saltzaile papeira jokatu behar dutenak; bakoitza bere berrikuntza nagusienarekin, krisiak krisi azokak eta erostunen karterak beteta jarraituko duten esperantzaz. Saltzea baino zerbait gehiago ere badugu buruan, ordea. Durangoko azoka ARGIAkook – harpidedun, kolaboratzaile, kioskerok, langile...– elkartzeko gune aproposa dugu. ARGIAko standean ikusiko dugu elkar.

Erein kazetaritza independentea

Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzea* liburuz eta astekari eraberrituz osatuko da ARGIAren stand-a. Aurtengo uzta. *Erein kazetaritza independentea* leloak batuko ditu *Bizi Baratzea* eta ARGIA proiektua eta Ainara Azpiazu "Axi"ren marrazkiek emango die berezko izaera, bizia, guneari.



Astekari berritua zer iruditu zaizu?

ARGIA proiektuaz hitz egiteko, iritziak jasotzeko eta astero-astero babesa emanaz harpidetza mantentzen dutenei eskerrak emateko lekua izango da ARGIAren gunea.

Astekari eraberritua argitaratzeko emandako urte beteko prozesuan kazetaritza independentearen ideia jorratu da ARGIAren barren-barrenetik hasita. Astekari berritua eskuetan dugunez, bakoitzaren iritziak eta ekarpenak jasotzeko garaia da.

Errekondoren kontsulta zabalik

Urteko produktu izarra izan da *Bizi Baratzea*, eta ikusita nolako harrera izan duten liburuaren aurkezpenek, Jakoba Errekondo egunero egongo da ARGIAren postuan. Aukera ederra duzu etxeko landareez kontsulta egiteko. ■

“Oraindik ZERUKO deitzen zen ARGIA astekarian idazten dut 1977az geroztik. Erran dezaket Hegoaldeaz dakidan guztia orrialde horietan ikasi nuela. Lotura ederra zen eta da mugaren bi aldeetako euskaradunontzat. Lehen hitzetik azkeneraino irakurtzen dut ARGIA, jada batzuetan, gaien aldetik bederen, INFERNUKOA dirudiena. Eskertzekoa, ekina...”

Itxaro Borda,
ARGIAko kolaboratzailea

Eman ARGIA berrituz zure iritzia:

- Sare sozialetan #argiaeraberritua traola erabilita.
- emailaz harpide@argia.eus-era idatzita.

AGENDA DURANGOKO AZOKAN

Bizi Baratzea liburuaren aurkezpena

- Abenduaren 4an, ostirala: 19:30ean Durangoko Azokako Areto Nagusian..

Landaberri irratsaioa

- Euskadi Irratiko Jakoba Errekondoren irratsaioa zuzenean Azokatik egingo da: abenduaren 5ean, larunbat goizean.

Pintxoak egin eta jan

- Ortutik Ahora elkartearekin elkarlanean: abenduak 6 igandea, abenduak 7 astelehena eta abenduak 8 asteartea: 11:00etan, Plateruena Kafe Antzokian.

2016ko Ilargiaren Egutegiaren aurkezpena

- Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean argitaratu dugun egutegia aurkeztuko dugu, Pello Zabala-ekin. Abenduak 8, asteartea, 16:30ean Durangoko Azokako Areto Nagusian.

POSIBLE DA POLITIKOKI PERREATZEA



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

Polemikaz inguratuta egon da reggaetoia, gure tabernetara iritsi zenetik bertatik. Hainbat gauza leporatu zaizkio: erritmo errepikakorrak, musikalki batere landua ez izatea... Indar bereziz aditu da beste salaketa bat ere: reggaetoia matxista dela. Edonola den, musika-estiloa bera al da matxista? Reggaetoi komertziala al da reggaetoia egiteko modu bakarra? Medeak talde transfeministako Kattalin Miner, *Pikara Magazine*ko June Fernandez eta Chaneka reggaetoi-talde transfeministako kideak izan ditugu solaskide.

Abuztu partean piztu zen atzera ezta-baida, indar berriz piztu ere, Elgoibarko jaien harira. Udaleko berdintasun-sailak kantu-zerrenda bat banatu zien ostalari eta txozna-guneetako arduradunei, musika ez-sexistaz osatutako zerrenda bat. Gerora ezagutu zen bertsio hori, hasieran zenbait hedabidek bestelako mezua zabaltu zuten-eta: Elgoibarrek reggaetoia debekatu zuela. Zergatik eta, bistan da, musika-estilo matxista delako. Udalaren ekintza positiboa nolatan bihurtu zen titular sentsazionalista argitzeko dago, eta bide horretan egin genitzake zenbait galdera pertinente, tartean, zergatik erreparatu zitzaion automatikoki reggaetoiari eta ez adibidez Euskal Rock Erradikalari, askoz ugariago entzuten baita hainbat jai-girotan?

Baina nolatan izango zara reggaetoi-zalea eta feminista?

Galdera hori behin eta berriro aditzeaz nekatuta idatzi zuen June Fernandez

kazetariak *Si no puedo perrear no es mi revolución* (Ezin badut perreatu ez da nire iraultza) artikulua. Agidanez, kezka orokor bati erantzun zion, izan ere, 100.000 lagunek baino gehiagok irakurri dute, Mexikoko bi aldizkaritan argitaratu, elkarrizketa-iturri izan da... Fenandez: "Nire ustez, reggaetoia hedatu da, hein handi batean, gure gizartean badagoelako behar bat gorputza askatu eta elkar gehiago ukituz dantzatzekoa. Reggaetoia eskandalagarri zaigu sexualitatea ekartzen duelako gogora, baina ez da berez beste estilo batzuk baino sexistagoa. Tangoan, adibidez, gizona da gidari, emakumea gidatu, eta salbuespenak salbuespen, ez da aukerarik izaten sexu bereko bikoteak dantzan aritzeko. Reggaetoia, aldiz, solte dantzatzeko, eta pertsona bakoitzak erabakitzen du beste dantzariengana zenbat hurbildu, eta nola. Perreoa sexista da soilik rol jakin batzuekin errepresentatzen den".

Orain 10 urte pasa sortutako Medeak talde transfeministak ere hasieratik izan du desira eta gozamina politizatze-ko helburua. Zentzu horretan, reggaetoia oso baliagarri gertatu zaie. Horrela azaldu du Kattalin Minerrek: "Emakumeen azpiraketa sustatzen duten mezu pila iristen zaigu modu sotilagoan, eta nik eskertu dut reggaetoiaren esplizitutasuna, hain zuzen, gordin erakusten duelako patriarkatua. Ez gara inozoak, eta badakigu emakumeen aurkako bortizkeria errepresentatzen duela, baina parodiarako aukera handiak ere ematen ditu. Izan ere, guk reggaetoia aldarrikatu izan dugu eredu iraui nahi genuen heinean. Adibidez, bi andre beraie artean perreatzen dutenean edo elkarri letra horiek kantatzen dizkiotenean, errotik iraultzen da reggaetoiaren hain presente dagoen maskulinizazioaren goren hori".

Azkenaldian, asko aldatu bide dira gauzak, Minerren iritziz: "Urte oso gu-



txiren buruan reggaetoia txertatu egin da gure espazio politikoak izan daitezkeenetan, bai behintzat jai-girokoetan. Demonioa kendu zaio. Gu baino gazteagoek nahiko natural bizi dute musika hori beren parranda-testuinguruan, beraz ez dakit zenbateraino iraultzen den. Bestalde, oso ezberdina iruditzen zait taberna hegemoniko edo diskoteka batera joan eta bertan reggaetoia dantzatzeari ala gure jai feminista batean geure artean perreatzea”.

Besteren begiko izpia itsusi...

Reggaetoiaren matxismoan hainbeste-ko arreta jartzea susmagarria iruditzen zaio Minerri: “Ez dut inoiz entzun Eskorbutoaren edo Cicatrizen kantu batzuen harira horrelako harrabotsik altxatzen zenik, ez gero Daddy Yankeearen kantuekin sortu den adinakorik. Hori hipokrita da. Euskal Herriaren alde edo zerbaiten aurka sexismoa erabiltzea zilegi da, honako hau, adibidez, ozen kantatu izan

» JUNE FERNANDEZ:

“Reggaetoia matxista dela dioten pertsonak esajeratutzat hartuko dute musika-jaialdi indieak sexistak direla”

» KATTALIN MINER:

“Hipokrita da: Euskal Herriaren alde edo poliziaren aurkako kantetan sexismoa erabiltzea onartzen da”



Chocolate Remix talde argentinarrak larru-jotzean gizonen plazeretik deszentralizatzeko adibideak ematen ditu "Empújalo" reggaetoi abestian.

dugu guztiok: *'quisiera encontrarme una mujer policía para estar jodiéndola todos los días, todos los días'* ('nahiko nuke andre polizia bat aurkitu, egunero eten-gabe ematen aritzeko'). Hor, garrantzi-

tsuagoa da polizia bat izorratzea emakume bat bortxatzea baino. Horrekin ez da ezer egiten, eta, aldiz, *"dále con el látigo"* ('emaiozu zigorrarekin') tratu txarretarako bidea iruditzen zaigu.

Galbahe bikoitza da: ondo pasatzeko musika denez, eta ez daukanez edukirik, sexismoa bakarrik ikusten dugu; musika politikoa, ordea, arazorik gabe onartzen da".

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio

BAI

- Komertzioetako plastiko poltsa
- Kafe kapsulak hustu
- Albal papera
- Aerosolak
- Erabili-hustutzeko lorontziak
- Plastikozko botilak, latak eta tetrabrickak
- Marrubien egurrezko kaxa txikiak

EZ

- Medikamentu kondarrak
- Ontziak likidoarekin (hustu eta tolestu)
- Tonerrak
- Lorontzi finko gogorak
- Plastikozko eskularruak
- Jostailuak

REGGAETOIA EGITEKO HAMAICA BIDE

Musika estiloaren alderdi komertzialari buruz jardun gara orain arte, baina, kultur adierazpideak tresna diren heinean, musika mota hori bestelako mezuak zabaltzeko ere baliatzen dute hainbatek. Tartean, *Chaneka* taldeak. Hiru lagun dira, txiletarrak, eta Frantzia bizi dira aspal-didanik. Taldearen izenak argi uzten du beren ikuspegia, izan ere, "chaneka" hitza irain gisa erabiltzen dute Txileko gazte burgesek, reggaetoia dantzatzeko duten neska beltzak mespretxatzeko.

Taldekideek diote reggaetoi transfer-minista egiten dutela, eta orain urtebete heldu zioten musikari, gustuko dutelako perreaztea, eta feminismotik egin nahi zutelako dantza: "Azken batean, jende ez-heterosexual gisa, ohituta gaude mezu masiboak gurera ekarri behar izaten. Masa-musikak ez du sekula gugan pentsatzen, eta beraz, etengabe aritzen gara, eta gustura, esanahiak hackeatzen. Beharrezkoa zaigu, existitzeko, gure tokia aurkitzeko, arnasteko; horregatik ekin genion reggaetoiari. Musika horren balizko karga sexistak ez digu bereziki eragin, ohartu nahi izatera, produkzio ia guztia baita sexista, klasista eta homofobia. Frantzia bizi garenez, susmagarria iru-

ditzen zaigu juxtu reggaetoia salatzea, *sudaca* den heinean".

Exotizazioari aurre egiteko ere balio die: "Kritika asko egin dizkigute, baita mugimendu feministaren barruan ere, europarrek latinoamerrikarrei ezartzen dieten exotikotasuna hauspotzen ei dugulako gure dantzekin. Baina, kontua da exotizazioa egon badagoela; gertatzen da, eta zerbait egin behar dugu horrekin. Biktimaren papera har genezakeen, edo exotizazioaz gu geu jabetu eta horri buelta eman".

Bat datoz denak, reggaetoieko mezu matxistak salatzenetik harago, alternatibetan ipini behar dela indarra, mezu ez-sexistak sustatzen dituzten abesti eta taldeak ezagutarazten. Hor dago, besteak beste, Chocolate Remix talde argentinarren *Empújalo (Bultza!)* kanta, larru-jotzeak gizonen plazeretik deszentralizatzeko argibideak ematen dituen, edo Torta Golosa txiletarrek abortu-eskubide libre eta doakoaren alde idatzitako doinua, abortatzeko aukera izan dezaten herrialdeko andre guztiek, baita pobreek eta maputxeek ere. Baliabide gutxi behar dituela-eta, estilo ezin aproposagoa da reggaetoia, hik heuk egiteko.

Fernandezen arabera, klasikoa da euskal gizarteak aiseago identifikatzea kanpotarren matxismoa bere propioa baino: "Seguru asko, reggaetoia matxista dela dioten pertsona horiek eurek esajeratutzat hartuko naute esaten badut musika-jaialdi indieak sexistak dire-

la. Baina, galde diezaigun gure buruei: zenbat emakume DJ aritzen dira musika elektronikoko aretoetan? Zer emakume eta gizon eredu sustatzen ditu heavy metalak? Zenbat emakume musikari egon ohi dira rock-jaialdietako karteletan?". Aurtengo Hatortxun, bi.

Letretara eta rolen erreproduktzio-
ra etorrira, Fernandezek ustez, begira-
dan datza gakoa, eta, gizarte patriar-
kal batean bizi izanda, gaitz orokorra
da hori: "Reggaetoi-letra ezagunenak
gizon heterosexualek idazten dituzte,
begirada beti da maskulinoa eta hete-
rosexuala. Gizon horiek beren desiren
arabera zehazten dute zelakoak diren
andreak eta zer duten gustuko. Hara
hor traba nagusia, emakumea ez dela
subjektu gisa agertzen eta bere desioez
mintzatzen. Dena dela, kontu hori ez da
reggaetoiaren beraren ezaugarri bat,
diskurtso androzentrikoaren ondorioa
da, eta musika komertzialean barra-ba-
rra agertzen da".

Klase-borroka ez da desagertu, eraldatu baizik

Auzi honetan guztian badago beste osagai bat, erabakigarria: reggaetoiaren jatorri kulturala. Miner: "Esango nuke, arrazakeria ez ezik, klase-kontu bat dela: zeinek entzuten duen musika hori eta zeinek bultzatzen duen. Ni egon naiz Daddy Yankee eta beste hainbat reggaetoi-musikariren kontzertuetan eta, hantxe, neu nintzen 'besteak', erabat. Bertan topatu ditut egunero ikusten ez ditudan bezalako jendeak, eta susmoa dut reggaetoiaren afera ez ote dagoen lotuta jende horrekiko errefus eta erri-dikulizazioarekin. Artikulu asko idatzi dira, reggaetoia entzuten duen jendea tontoagoa dela, edo ez daukala ikasketarik... Baina, zer da kontua: reggaetoia entzuteak egiten zaitu ergel ala klase apalagoetako jendeak jotzen du musika horretara? Inork ez du ikerketarik egin ikusteko ea zer koefiziente intelektual daukan Alejandro Sanz edo Su ta Gar entzuten duen jendeak". ■



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5 - 20004 Donostia
T. 943 420 205 / 688 662 858
info@casalabores.com
www.eskulanenetxea.com



Ogiaren egia

**Galparsoro
OKINDEGIA**

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074




Tolosako Babarruna



Hoberenak
soilik
aukeratzen
ditugu

943 650 253 · www.tolosakobabarruna.com


KEN ZAZPI
Phoenicoperus



elkar

www.elkarargitaletxea.eus

KANTUZ 1965-2015
Memoria eta desira



MIKEL URDANGARIN
MMXV



Musikarik onena zuretzat



X HIL DA
Alaine Agirre



12etan BERMUTA
Jasone Osoro



HONDAMENDIA
Xabier Montoia

Bizi literatura

elkar

www.elkarargitaletxea.eus



duran...go!
goazen!

Euskara Saila

www.durango-euskaraz.net



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Industria sortzearen garrantzia

EUSKAL ZINE BILERAK

EUSKAL FILM LABURREN KARTOGRAFIA MAHAI-INGURUA

Hizlariak (argazkian, ezker-eskuin):

Maider Fernandez zinegile eta Las Chicas del Pasaik kolektiboko kidea, Jon Garaño zuzendari, gidoilari eta ekoizlea, Kepa Sojo zuzendari, gidoilari eta historialaria, eta Txema Muñoz Kimuak programako zuzendaria. Moderatzailea: Miren Manias



Miren Manias

@beavis



Lekeitioko Euskal Zine Bilerak, euskarazko zinema jaialdi bakarrak, helburu bat du: film laburren sorkuntza saritzea. Antolatzaileen esanetan, altuagoa da urtetik urtera aurkeztutako lan kopurua bai eta horien kalitate maila ere. Interesgarria iruditu zaie jaialdiaren barruan antolatzen den Berbaldia mahai-ingurura gaia ekartzea: sektorearen egungo egoeraz mintzatzeko, eztabaida pizteko eta iritziak elkartrukatzeko.

Txema Muñoz Kimuak egitasmoaren zuzendariaren arabera, ez dago industriaririk. "Sektorea garatu egin da soilik. Garai batean ikasleek beren gauzak egiteko erabiltzen zutena bilakatu da gero eta hobe den arlo bat". Euskarazko lanen gaineko datu bat ere eman du Muñozek: "oso onak" diren euskarazko 8-10 film labur egiten dira urtean.

Kepa Sojo zinemagile eta EHUKo irakasleak nabarmendu duenez, literaturan nobela eta saiakerarekin gertatzen den bezala, "film laburra genero bat da eta autore askok ez du film luzerako saltoa emateko inongo intentziorik". Aldiz, Jon Garaño zinegileak dio oraindik badagoela film laburrak interesatu ez eta horiek egiten dituenik, gero luzerako saltoa ematea helburu; "alegia, bokaziorik gabe, horrela ulertzen dutelako edo unibertitateak behartzen dituelako halako lanak egitera".

Errealitateak dio, halere, "gogo txarrez" egindako hori ona dela. Maider Fernandez zinemagile eta Las Chicas de Pasaik kolektiboko kidearen ustez, teknologiaren demokratizazioak ahalbidetu du lanen kalitatea asko hobetzea. Gaur egun, "denak dira filmak, laburrak

edo luzeak izan". Beraz, nola ezberdindu Euskal Zine Bilerak sailkatzen dituen lanen profesionaltasuna eta amateurismoa? Lau hizlariak aitortu dute muga lausoa dela, eta lanaren izaera produktio ereduak markatzen duela.

Demokratizazioarekin batera, labor txarrak ere izan ohi dira, gogoratu du Garaño: "Denok egin dezakegu labor bat, baina ez labor on bat. Argazkilartzan berdina gertatzen da". Fernandezek, bestalde, baliabide ekonomikorik gabe egin ditu hainbat lan, baina aldarrikatzen du ezin dela onartu ezer ko-bratu gabe lan egitea. Ildo horretan, industria sortzeko beharra azpimarratu du Muñozek, izan ere, "lantalde profesional egonkorrek sortzea ezinbesteko baldintza izango da sektorearen etorkizuna bermatzeko". ■

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gazte nahiz heldu, euskara ikastea merezi du

2016an A1, A2 eta B1 egiaztagiria euskaltegian bertan


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Zorionekoak irakurleok



Xabier Etxaniz Erle



Justin Hiriart MURO HARRIET

Ilustratzailea:
Francisco Fructuoso
Erein, 2015
246 orrialde

Euskal komikigintzan mugarri izan ziren 1980ko hamarkadan Erein argitaletxeak plazaraturiko hainbat lan, tartean Fructuoso eta Harrieten artean eginiko Justin Hiriart bildumako hiru tomoak: *Itsas gorritan* (1983), *Izotzetako tranpa* (1989) eta *Sekreto* (1989). Orain, hiru hamarkada geroago, serie horren edizio osoa plazaratu da; aurreko hiru lan horiez gain beste bi gehiago sartuz: *Brulota* eta *Satanen itsasontzia*. Eta eskertzekoa da edizio hau, ez bakarrik lan haiek berriro irakurtzeko aukera eskaintzen digulako, baita bilduma osoa liburu batean argitaratzeagatik ere, irakurleen gozamenerrako.

Justin Hiriart protagonista nagusiaren izena dugu, XVII. mende hasieran euskal baleontzi bateko kapitaina. Eta liburuko orrietan irakurleak kapitainaren eta haren lagunen abenturak ezagutuko ditu erritmo gero eta biziagorekin. Inuitak, Mic-Mac indioak, Europako herrialdeen arteko eztabaidak eta borrokak Ameriketara... eta horiez gain gizakion artekoak, indarkeria, maltzurkeria edo, baita, adiskidetasuna, laguntza eta maitasuna ere ageri dira liburu honetan.

Abenturazko liburua dugu komiki lan hau. Literaturan klasikoak izan diren hainbat eta hainbat lanen ondorioa (gutziz interesgarria sinatu gabeko hitzaurrean egiten den azterketa). Eta alde horretatik irakurlea entretenitu eta gozatzeko prestatzen duen lana. Muro Harrietek euskal baleazaleen istorioetatik edan du gidoia egiteko; Ternuako indioekin euskal arrantzaleek izaniko harreman ezaguna eta inuitekin izandako borrokak ageri dira hemen; baita Frantziako ontziekin eta agintariekin izanikoak ere.

Baina abenturaz gain liburuan naturarekiko kezka ere ageri zaigu, gehiegizko kontsumoaren kontrako jokaera Justinen aldetik; naturaren aldeko apustua indioekin geratu nahi duenean...: "Arrazoia huen esaten huenan han ezin dela Mic-Mactarren bizimoduan bizi; hemen bai, ordea, horregatik geratu nahi diat!".

Egileek komikiaren bizitasuna ederki erabiltzen dute istorioa narratzeko. Hitz gutxi, elkarrizketa eta deskribapen bakan batzuk, eta horien ondoan irudien indarra. Justin eta Martinen artean arestian aipaturiko elkarrizketaren ondorengo bereizketan esaterako: Justin lehorrean urruntzen ari den itsasontziari begira, ondoren aingura altxatzen eta behean bi irudi, bata lehorrekota eta bestea itsasokoa; bakoitzaren baitan beste bi irudi lagun biena elkarri begira, osorik bata, aurpegiarena bestea. Irakurleak ez du hitzik behar, irudiak berak irudikatzen baitu bi lagunen buruetan dabilena.

Txalogarria beraz Erein etxeak eginiko apustua, eta zorionekoak abenturak, komikiak, istorioak eta literatura maite ditugunok: urte askotarako liburu ederra baitugu hau. ■



» TELEGRAMA

Durangoko Azoka hemen dugu eta, ekoizpen kulturalen salerosketarako lekua baino askoz gehiago dela erakusteko, kontzertuak, hitzaldiak, filmak... denetik aurkituko du bisitariak abenduaren 4tik 8ra STOP **Lou Topet eta Harkaitz Cano** *Abesti bat gutxiago* egitasmoarekin Gasteizen izango dira abenduaren 4an: Jimmy Jazz aretoa. Sarrera doan. Gonbidapenak Oihaneder Euskararen Etxean eta Hor Dagon STOP **Jupiter Jon** taldeak Errenteria-Oreretako Niessen aretoan kontzertua eskainiko du abenduaren 6an. Duela gutxi argitaratu duten *Eta metaforak greba egin zebe...* disko kanta entzuteko aukera paregabea STOP **Krzysztof Kieslowski** zuzendariari eskainitako zikloarekin jarraitzen du Donostiako Nosferatuk: abenduaren 9an lau labur eskainiko dituzte Tabakaleran STOP

» DISKOA



**Eratu
BIDEA**

Mauka, 2015



Iker Barandiaran

Aurreko batean Joseba Ponceri irakurri nion *Berrian*, JP Lohian proiektua aurkezterakoan, “gazte ‘martzianoen’ falta sumatzen” zuela, alajaina, gaur egungo gazteen ia talde guztiek musika eskaintza antzekoa dutela. Bat nator berarekin hein handi batean, baina horri gehituko nioke gaur egungo gazteek oso interes gutxi jartzen dutela eskaintza berri desberdinetan. Askotan pentsatu –eta idatzi– izan dut gure garaian, internet eta youtube ez zeudenean, askoz gehiago arriskatzeko gurela ezezagunak ziren taldeen kontzertuetara joaten, erreferentzia txikienarekin edo ezerk lagunduta. Eta halakoak izaten ziren sorpresak gainera, galantak!

Beste ikuspegi batetik, kontzertuak antolatzen aritzen garen tamainan argi eta garbi egiaztatu dezakegu gaur egungo gazteak –30 urtetik beherakoez ari naiz– bospasei musika talde ikusteko daudela prest mugitzeko eta sarre-
ra erosteko. Eskerrak berrietasunaren, aniztasunaren eta kalitatearen alde, horietako bat Glaukoma den.

Testuinguru horretan gaur egun sortzen diren talde gehienak halako tribu edo esparru zehatzetan sartzen ditugu; ez da erraza hortik irtetea eta aurrera egitea. Horietako bat dugu Eratu taldea, hirukotea bera eta Ondarroa, Gasteiz eta Aguraingo partaideak dituen. Aurkeztu berri duten azken diskoan, aurrekoetan bezala, metala eta punk-popa dira in-

dar-guneak; biak ala biak 90eko hamarkadatik gaur egunera arte gure artean presentzia handia izan duten estiloak eta nahiko onartuak direnak.

Bada, Eratu taldearen ezaugarrietako bat da –seguruenik partaide bakoitzak herri eta abiapuntu desberdinetik datorrelako– kantuek estilo bat baino gehiago hartzen dutela bere baitan, eta kasu batean baino gehiagotan ia muturreko *tempo*, giro eta emozioekin. Entzule bati baino gehiagori gerta dakioke bata edo bestea aukeratzea, baina ez bien (edo hiruen) uztarketa. Kantuek asko dute melodiatik, norbera gazteztzeko eta betikotzeko punk-poparen hil ala bizi energiatik, baina baita eskola zaharreko thrash eta metal pisutsu eta erraienetakotik ere, besteak beste. Eta kantuak idazterakoan sortzen dituzten giro aldaketetan edo gehitzen dituzten ñabarduratan nabaritzen da taldekideak musikazale amorratuak badirela, eta instrumentalki ere gaitasun handia dutela.

Partaideen eta taldearen eskaintza-
ren irekieraren isla dira disko honetan ekarpenak egiten izan dituzten beste musikarien lana ere: Glaukoma taldeko Juantxo Rage Against the Machine berpiztuko lukeen *Eslogan gehienei falta zaien praktika* borobilean; Fer Apoa *Pentsatu, erabaki, hartu* kantu bortitz baina sentikorrean; eta Keu Agirretxea maisua bere gitarrak gehitzen hainbat eta hainbat kantutan. ■



Kartzelak salbatua

GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA FINALERDIA

TOLOSAKO USABAL, AZAROAK 29

Sailkapena:

Unai Agirrek (517 puntu) irabazi du eta zuzenean sailkatu da finalerako. Bere atzetik geratu dira, hurrenez hurren, Beñat Gaztelumendi (501), Iñaki Apalategi (493,5), Oihana Iguaran (482), Nerea Elustondo (476) eta Beñat Lizaso (458,5).



Kepa Matxain Iztueta

@kmatxain

“Hi, saio borobila zian!” bota nion Inesi, zirikatzaile, kartzelako ariketaren faltan, sumaturik irakiten hastear zela, zerbaiten aurka egin nahi eta ezinean. Aurreko kronikan bere ahotan “modu nahiko onargarrian” jarri nituenak irakurri omen zituen, eta behin zorrotz fama hartuta, hari kosta ahala kosta eutsi nahi zion. Bai baita Ines pixka bat espezie horretakoa, marmarti sindromea, aldeztu aurretik kontrara egoteko berezko jarrera duena. Atzokoan lan zaila zeukan, orde: maila oso oneko finalerdia zihoan Tolosan.

Iñaki Apalategi oso fin ari zen, puntu erantzunetan sendo eta sei puntuko motzean bereziki trebe. Oihana Iguaran, ziur asko txapelketak gehien hazi arazi duen bertsolaria, oso erregular eta asmotsu. Beñat Lizaso zuzen, ofizio erabat borobilik egin gabe baina tartean behin une onak utziz. Beñat Gaztelumendi bere ohiko mailan, distiratzeko ez zutenetan ere oso bertsu egokiak josiz. Berak eta Unai Agirrek egin zuten, zortzikotxikian, arratsaldeko ofizio onentsuena. Agirre bikain zebilen denean, gainontzekoei koska txiki bat aterata. Nerea Elustondo, azkenik, gorabehera batzuekin, baina han hemen perla dotoreak utziz.

Panorama zaila, beraz, Ines bezalako kritikari hagin zorrotz batentzat. Al-



ALBERTO ELOSEGI, BERTSOZALE ELKARTEA

boko eserlekuan nekusan, estualdietan sendo, masailak gorri eta belarriak zut, bere irizpide zorrotzak lau haizetara erakusteko balioko zion aitzakiaren baten esperoan, desesperaziotik gertu. Orduan ailegatu zen kartzela, beti hain eskuzabal, laguna salbatzera.

Hala zioen kartzelako gaiak: “Sarri pentsatu izan duzun arren, ez diozu esan oraindik”. Entzun bezain pronto purrustan hasi zen Ines: “Jarri al zitekeek gai irekiagorik? Ia edozer kabitzen duk aterpe zabal horretan! Egin gabeko aitorpen bat botatzearekin aski ditek. Halako gaiek kalte egiten ziotek bat-batekotasunari”. Ideia argiago azaltzeko eskatu nion. “Jakingo duk noski taula gaineko bertsoa izebergaren punta dela ez? Jakingo duk noski horrek bat-batekotik adina daukala aurretik prestatutakotik ez? Bertsolaria entrenatuta igotzen duk horra, errimategiak landuta, errekurtsio asko barneratuta, automatismo ugariarekin. Baina, hori hala izanda ere, bazagok zerbait bertsu bakoitza bakar egiten duena: unearekiko, testuinguruarekiko duen lotura. Gaia duk, besteak beste, lotura hori zedarritzeko elementu oso garrantzitsu bat. Zer gertatzen duk halako gai zabala jartzean? Gauzak asko errazten dizkioala bertsolariari: ziur asko


izango dik gaian kabitzen den bertsu sortaren bat aurrez egin. Nahikoa dik hura gogoratu, pixka bat makillatu, eta botatzea. Kartzelako gai on batek eduki behar dik gehiago lotzen duen elementuren bat, bertsualdia bakar bihurtu arazi nahi badu”.

Inesen sermoia liseritu bitartean, bertsolarien lanari erreparatu nion. Arreta piztu zidan kontu batek: seitik lauk maitasun aitortza bat egin zuten. Lautik hiruk, amari. Lagunari komentatu nion, datu kurioso bezala. Erantzuna prest zeukan hark: “Agian askotxo esatea izango duk, baina sumatzen diat joera bat, inkontzientea ziur asko, emotibitatezko, malkoaren bila joatekoa, entzulearengana iristeko modurik onena balitz bezala. Bide zilegia duk, ondo eginez gero –gaur Gaztelumendi ibili duk finen–. Baina bazauzkak arriskuak ere: azukre gaitasuna, hitz ponposoen segida merkeak, poetiko ustezko kurtisiladak... eta hainbatetan muga-mugan ibiltzen dituk batzuk. Entzule moduan asko estimatu diat, esaterako, gaurkoan Agirrek hartu duen bidea, auzi emozionaletatik kanpo mila aitortza egin daitezkeela erakutsiz”.

Eta hori esanda, arnasa sakon hartu eta bere baitara itzuli zen, arratsaldean aurrenekoz. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:


1. Kaolina. 57 kilometro luze den ibai hau **Balmaseda, Zalla, Gueñes eta Alonsotegitik igaro eta Sodupen Zalduren urak hartu ondoren Lutzana inguruan Bilboko itsasadarera isurtzen da.** Mantelina, burua estaltzeko zapi. 2. Armeniako biztanle. Pilota jokoa, angeluan bertan jotzen duela. Igaro den denbora. 3. Irekidura sakona eta luzea. Elkarrekin finantzario. 4. Topekadak. **24,5 kilometroko ibilbidea egiten duen ibai hau Bizkargi mendian sortu eta Plentzian itsasoratzen da. Butroeko gaztelu ondotik pasatzean Plentzia izena hartzen du.** 5. Borrokarik eza. 6. Haize musika tresna handia. 7. Txantxetan, burlaka. Boz. 8. Esaldi, perpaus. **25 kilometroko ibaia; Gorbeian sortzen da, Igorren Indusiren urak biltzen ditu eta Bedia inguruan Ibaizabalera isurtzen da.** 9. Beldurti, ikarati. Bertsoa. Julian ..., telebista aurkezlea. 10. Arras, zeharo. Onura jakin batez baliatzen dena. Baldintza.

Goitik behera:

1. Itxuragabeko. 2. Zakur. Uso ar. 3. Samarioaren sinboloa. Atzizki destinatiboa. 4. Suari dariona. **19,4 kilometro luze den ibaia, Oiz inguruan sortzen da eta Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga eta Amorototik pasa ondoren Mendexa eta Lekeitio artean itsasoratzen da.** 5. Leku atzizkia. Ale landare. 6. Kasik. Adina. 7. Jatetxeetako janari zerrenda. 8. Emeak ez direnak. 9. Bihi, garau. 10. Agian. 11. Ontziaren egituraren ardatza. Ez garden. 12. Ezezkor. Azukre-kanaberaren destilazioz lortutako edari. 13. Artoaren lorea. 14. Eskumen. 15. Musikan, soinuak adierazteko ikurrak. 16. Intsektu mota. 17. Nori atzizkia. Gipuzkoako udalerria. 18. Likido bihurtu. ... hoc, latinezko lokuzioa. 19. Zirt-..., onomatopeia. Naizen hau. 20. Agurtzeko hitza. Euskal fonema. 21. Kartarik ez duzula nahi. Ihi. 22. Gizarteratze.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.




5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

- 1.- Eder, sotil
- 2.- Desira adierazteko hitza.
- 3.- Goi-mailako elikagaien marka.
- 4.- Biloak.
- 5.- Topekada.



Soluzioak



Ezker-eskuin: 1. Toska, Kadagua, Buruzapi. 2. Armeniar, Plik, Iragan. 3. Arratia, Trust. 4. Talkak. 5. Baka. 6. Organoa. 7. Burtaz, Abots. 8. Etsaera. 9. Kakati, Kobia, lantzi. 10. Oro, Onuraduna. 11. Kondizio. 12. Integratio. 13. Garba. 14. Ahal. 15. Notak. 16. Oti. 17. Ri. Beasain. 18. Urtu, Ad. 19. Zart. 20. Agur. 21. Paso, Zi. 22. Integrazio.

Goitik behera: 1. Taxugabeko. 2. Or. Usar. 3. Sm, Rako. 4. Ke, Lea. 5. An, Arto. 6. Ia, Beasain. 7. Karta. 8. Arrak. 9. Ale. 10. Apika. 11. Gila. Opaku. 12. Utkor. Ron. 13. Garba. 14. Ahal. 15. Notak. 16. Oti. 17. Ri. Beasain. 18. Urtu, Ad. 19. Zart. 20. Agur. 21. Paso, Zi. 22. Integrazio.

Pol Galofre. Transsexualitatea eta feminismoa kulturatik aldarrikatzen



FRANCINA RIBES

Bartzelona, 1987. Mundua aldatu nahi duela dioen aktibista honek soinuari egiten du lan zinema dokumentalean. 2005etik Bartzelonako mugimendu trans eta feministan ezaguna da, besteak beste azken urteetan Cultura Trans egitasmoaren koordinatzaileetako bat izan delako. Urrian mintzatu ginen berarekin, despatologizazio trans-aren aldeko hilabetearen prestakuntzan buru-belarri zebilela.

“Gizonei *trans* kategoria onartzen zaie emakumeei baino neurri handiagoan”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

Autodefentsa

“Beti ibili izan naiz mugimendu feministan parte hartzen eta elkarlanean ekimen andana antolatzen. Azkenaldi honetan autodefentsaren inguruan lan handia egin da, ikusita nola hazten ari den erasoaren kopurua. Nik ikas-taroak jaso ditut, baina azkenaldian gizon trans-ek horietan duten parte hartzearekin zalantzak ditut; azken batean, gizonen irudia ordezkatzeko dugu eta hori emakume batzuentzat deserosoa izan daiteke”

Ez dizut bizipenetan oinarritutako ohiko elkarrizketa egin nahi. Nolakoa izan da zure trantsizio prozesua, noiz ohartu zinen, eta abar...

Pozten naiz, niri ere nagi galanta ematen didalako. Nahiago nuke beste leku batetik aritzea eta gisa horretako galderak saihestea. Orain arte hamaika aldiz erantzun izan dut zer den trans-a izatea, nolakoa izan den nire trantsizioa, hormonatze prozesua noiz eta nola hasi nuen... Batez ere bizipen hori duten pertsonen lagundu ahal nielakoan erantzun izan dut baina azkenaldian nekatuta nabiltz horrekin. Zinea egiten dut, hainbat kolektibotan parte hartzen dut eta hortik kontatu nahi ditut gauzak. Gainera kontziente naiz nire bizipena nirea baino ez dela eta milaka modu dagoela trans izateko. Bakoitzak berea dauka. Bartzelonako auzo batean hazi naiz, gurusoak medikuak ditut eta ez dut prozesua beste batzuek bizi duten modu gatazkatsuan bizi izan. Baina badakit beste pertsona trans askok askoz modu

bakartiagoan eta konplexuagoan bizi dutela.

Cultura Trans proiektuan parte hartzen duzu 2005etik. Zer da?

Erreferente berriak sustatzen ditugu batez ere. Horrekin, sistemaren egitura eraldatu eta trans kultura gizartean erabat barneratzea bilatzen dugu. Era berean, interes berezia dugu belaunaldi trans berrientzako mezu eraikitzaileak sortzeko, etorkizunean leku positiboago batetik pentsa dezaten euren burua. Hori guztia kulturaren eremutik egin nahi dugu jakin badakigulako kulturak ahalmen eraldatzaile izugarria duela, kasu askotan politika konbentzionalak baino handiagoa.

Erreferenteez ari zarela... Zineman zein da panorama?

Interneten bilaketa bat egingo bazenu harrituko zinateke erreferentzia eskasiarekin. Azken urteetan Lana Wachowski zine zuzendaria (*V de Ven-*



CFD BARCELONA

Galofre ezkerrean, kamerari bizkarra emanez, transexualitateari buruzko erakusketa batean hitzaldia ematen.

dett a, Matrix...) da gehien aipatzen dena. Bat-batean pertsona trans bat *mainstream*-ean errekonozimendu osoz agertzeak pentsamolde arautuaren moldeak hautsi ditu: trans-ek, prostituzioan aritzeaz gain, zineman jardun dezakete, eta *Matrix* bezalako pelikulak egin. Baina Wachowskiz haratago pertsona trans gehiago egongo da zineman noski, kamera aurrean gutxi batzuk eta kamera atzean beste batzuk.

Zure ustez horrek lagundu egiten du?

Ba kontraesanak ditut. Alde batetik ikusgarritasuna beharrezkoa dela uste dut. Esan dudan bezala, erreferente trans-ak zirkuitu ofizial edota sozialki onartuetan egoteak, prozesua bizi duten pertsonentzat lagungarria izan daiteke. Baina bestalde, ez dut uste ikusgarri bihurtzen diren pertsona trans horiek komunitate osoa erabat ordezkatzeko dutenik. Askotan fribolitate dosi bat onartzen zaien pertsonaia famatuak baino ez direla ematen du.

Horrek zerikusi gutxi izango du pertsona askok bizi dutenarekin.

Jakina, hori ez da komunitate trans-aren errealitatea. Esango nuke, pertsona trans-en gehiengo zabal batek bazterketa bizi duela oraindik. Sinetzidazu, trans aktibismoan denbora luzea daramat eta denetarik ikusi dut. Oraindik orain transexualitatea eta bazterketa oso lotuta doazen kontzeptuak dira; lana aurkitzeko, hormonazio prozesuak medikuaren jarraipenarekin egiteko, estigmaren ondoriozko kalteei aurre egiteko... Zailtasun asko dago oraindik eta horregatik, bestelako erreferentzia trans-ak berreskuratu eta zabaltzea ezinbestekoa dela uste dut.

Alegia, ordezkaritza duinagoen alde lan egiten duzu(e)la.

Hala da. Bitxia da, izan ere, azkenaldian ordezkartzaren gaian arreta jartzen ari bainaiz, batez ere fikzioan, eta ondorio batera iristen ari naiz. Pertsona trans-ak pelikula edota publizitatean irudikatu nahi direnean, ia gehienetan gizonez-

koek ordezkatzeko dituzte, izan gizon trans-a edo izan emakume trans-a irudikatu nahi den pertsonaia. *Transamerica* pelikula da emakumezko batek trans baten rola jokatzen duen bakarrenetakoa, Felicity Huffman aktoreak egiten duena, hain zuzen ere. Azken batean, pentsatu nahi dut horren atzean badagoela patriarkatuaren eragina, eta ondorioz, gizonei onartzen zaiela trans kategoria, emakumeei baino neurri handiago batean.

Bukatzeko: zein da Pol Galofrek egin nahiko lukeen pelikula?

Ufa... Galdera zaila. Esan ahal dizut zein den nire azken lana. Finantzaketa lortu dugu proiektu baterako non saiatzen ari garen lan mundua eta transexualitatea elkarlotzen eta ikustarazten. Hainbat lanpostutan lan egiten duten pertsona trans-en dokumentazioa lana egiten ari gara. Eta beti bezala, uste baino kasu askoz gehiago aurkitzen ari gara. Proiektu interesgarria da, azken batean asmoa dugu trans-ak leku askotan gaudela erakusteko. ■



ARTXIBOKO IRUDIA

Trikiti-bonba bat desaktibatu dute Bizardunak taldearen furgoi azpian

20 kilo kloratita zeuzkan Zero Sette markako trikiti bat desaktibatu du Foruzaingoak Bizardunak taldearen furgoi azpian. Polizia gertakaria ikertzen ari da eta susmagarritzat jo ditu lehergailua jarri den inguruan aurkitutako paskinak, "tomad *Sueños de color* nazkantes" bezalako esaldiak irakur zitez-

keelako. Esne Beltza taldeak ukatu egin du gertakariarekin zerikusirik duenik eta "euskal musikak bizi duen gatazka-ren testuinguruan" kokatu du ekintza. Bizardunak taldeak, bere aldetik, adierazpen labur hau egin du: "Lehenago hilko gaitu zirrosiak marikita gipuzkoar batzuek baino".

Pizca bat es asko

Beranduegiren adierazpen instituzionala Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta: "Aurre-paleolitotik edo akaso pare bat hilabete lehenagotik hizkuntza arraro bat gorde izana ospatuko dugu berriro euskaldunok abenduaren 3an. Oso-oso zaharra da Aitorren hizkuntza. Twitterrik ez zen garaikoa. Eta polita. Aiii zer xarmagarria! Nork ez du hori inoiz erraetan sentitu Zubeoroara Wesftaliaz egindako oporraldiren batean. Tumatxa. Gainera hain da berbakune garbia eta biraorik gabea!


Eskerrak aldameneko erdara horiek ditugun haserretzen garenerako. Tira ba, harira, euskara denona da. Arrazoi dute Iturgaitzek, Maneirok eta Baztarrikak. Beraz, ez utzi engainatzen zapal dutako eskubideen matraka horrekin, politizazioak disgustuak besterik ez dakartzat! Abenduaren 3an pozik biziatu zaitez, amaren bularretik jasotakoa maitatu, lip-dubetan parte hartu, eta Facebooken hitz gozoak eskaini gure aberriaren hizkuntza loriatsuari. 4an, si eso, ba... ikusiko dugu zer egin.

SAREAN ARRANTZATUA

Üskara txutxeko gida



LesboGayBertsoTrans (LGBT) elkarteko egoitza



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

| OROIMEN HISTORIKOA

INGURUMENA

EUSKALTALETASUNA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA

PAREKIDETASUNA

DEMOKRAZIA ZUZENA

DESOBEDIENTZIA ZIBILA


GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

HERRIEN MUNDUA

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



ARGIA n, ia mende osoko euskarazko kazetaritza lanaren oinordeko gara. Jaso dugun ondarea zainduz, nagusiki Euskal Herrian hedatzen den proiektu komunikatiboa gara. Ondare hori jendarteratzeko asmoz, *Trantsizioak* erakusketa ibiltaria martxan jarri dugu.



*Suti Amilibiaren GERRAKO
IPUINAK.*
Ipuin liburua.

3 ale

INTXORTA 1937 Kultur Elkartea
www.intxorta.org



*Gerra Zibila Debagoieneko
herrietan.*
Liburuak eta dokumentalak.

2 sorta

INTXORTA 1937 Kultur Elkartea
www.intxorta.org



*Aldaba Joka. Hernaniko
ahozko historia txikia.*
Liburua eta DVDa.

3 sorta

Dobera Euskara Elkartea
www.dobera.eus



*Euskararen Kate hautsiak eta
Frankismoa Euskal Herrian.*
Liburuak.

2 ale

Euskal Memoria Fundazioa
www.euskalmemoria.eus

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea



gure artean **e** euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.